


2017ko JARDUEREN MEMORIA



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

AURKEZPENA

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak 2018ko maiatzaren 22an egindako bileran onetsi zuen agiri hau. Erakundeei, antolakundeei eta herritar guztiei Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak 2017. urtean egindako jardueren berri ematea da helburua.

Lehenengo eta behin, barne-antolaketa deskribatzen du eta zehazten du zein den Emakunderen zeregina, eta, horrekin bat etorritik, bi atal nagusitan egituratzen da: lehenengoak garatutako jardura jasotzen du, batez ere erakunde publikoen eremuan, politika publikoak diseinatzeko, sustatzeko, koordinatzeko, aholkatzeko, horien jarraipena egiteko eta horietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko ekintzen inguruko lana. Atal hau botere publikoen bidez eginiko ekintzei buruzkoa da, batez ere administrazioko hiru mailetan, eta Estatuko, Europako eta nazioarteko erakundeekiko harremanen esparruan.

Bigarren atalean, gizarte osoarentzat bideratutako jardura azaltzen da, bai agente edo talde antolatuen bitartez egindakoa (adibidez, emakume-elkarteek edo enpresa eta erakunde pribatuek egindakoa), bai herritarrentzat egindakoa. Jardura honetan bi alderdi sartzen dira: alde batetik diskriminazio-egoera zehatzei emandako erantzuna, eta, bestetik, gizarte-sentsibilizazioa.

Emakundek eskerrak eman nahi dizkio administrazioan eta beste erakunde batzuetan profesionaltasunaren bidez memoria honetan jasotzen diren jardura guztiak egiten laguntzen duen pertsona orori, batez ere, berdintasuneko teknikariei. Halaber, Emakunderen Zuzendaritzak bere aintzatespena eta esker ona adierazi nahi dizkie Erakundearen lan egiten duten pertsona guztiei, egunero gauzak ondo egiteko gaitasuna eta erakundearen xede eta helburuekiko konpromisoa erakusteagatik.

Eskerrik asko guztioi.



Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua



AURKIBIDEA

AURKEZPENA 2

1. SARRERA: EMAKUNDE 4

1.1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea. Eginkizuna eta antolaketa.....	5
1.2. Legegintzaldiaren hasiera, erronka garrantzitsuak	6
1.3. EAeko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana	7
1.4. Emakumeen kontrako indarkeriaren arloan esku-hartzeko esparru juridikoa eguneratzea..	9
1.5. Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua	10
1.6. Eusko Legebiltzarrarekiko harremana	10
1.7. Berrikuntza publikoa eta kudeaketa aurreratua.....	10
1.8. Euskararen erabilera normalizatzea	12

2. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ESPARRUAN EGINDAKO JARDUERAK 13

2.1. Sustapena, aholkularitza eta erakundeen koordinazioa.....	14
2.1.1. Administrazio autonomikoa.....	14
2.1.2. Foru- eta toki-administrazioa.....	20
2.1.3. Beste erakunde eta antolakunde batzuekiko koordinazioa eta lankidetzatza.....	24
2.2. Politika publikoen ebaluazioa	39
2.3. Zeharkako jardueraren esparru eta zerbitzuak	41
2.3.1. Aholkularitza juridikoa.....	41
2.3.2. Prestakuntza.....	43
2.3.3. Azterlanak, ikerketak eta argitalpenak	50

3. GIZARTE OSOA XEDE DUTEN JARDUERAK 56

3.1. Emakumeen elkartegintza eta berdintasunaren aldeko mugimenduak sendotu eta bultzatzea	57
3.1.1. Lan-proiektuak emakumeen elkarrekin.....	57
3.1.2. Emakumeen elkarte eta federazioentzako diru-laguntzak.....	58
3.1.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, horren inguruko sentsibilizazioa eta laguntza bultzatzen duten erakunde, elkarte eta fundazioentzako diru-laguntzak	58
3.2. Enpresentzako aholkularitza eta laguntza	59
3.2.1. Berdintasun-planak: aholkularitza	59
3.2.2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru-laguntzak	59
3.2.3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzatza Erakundeak.....	60

3.2.4. Aholkularitza-enpresen homologazioa eta jarraipena	61
3.2.5. Enpresei laguntzeko beste tresna batzuk	61
3.3. Herritarrei arreta zuzena emateko jarduketak, berdintasun-printzipioa eta bereizkeriarik ezarena defendatzeko sektore pribatuan	62
3.4. Gizarte-sentsibilizazioa	63
3.4.1. Nahiko programa.....	64
3.4.2. Beldur Barik programaren esperientzia pilotua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan	65
3.4.3. Volar, indarkeriatik bizirik irten diren emakumeen ordainerako proiektua.....	66
3.4.4. Gizonduz ekimena	67
3.4.5. Kanpainak	69
3.4.6. Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako gunea	72
3.4.7. 'Emakunde' aldizkaria argitaratzea.....	72
3.4.8. Hedabideetan agertzea	73
3.4.9. Berdintasunaren Emakunde Saria	73
3.4.10. Emakunderen webgunea eta sare sozialak	75
3.4.11. Emakunderen Zuzendaritzaren presentzia sentsibilizazio-jardueretan.....	75

4. ERANSKINAK 81

1. ERANSKINA: Diagnostikoak egiteko eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiteko eta ebaluatzeko diru-laguntzak jaso dituzten udalerrri, kuadrilla eta mankomunitateen zerrenda.	82
2. ERANSKINA: Dokumentazio Zentroko kontsulten banaketa.....	84
3. ERANSKINA: Emakume eta gizonen berdintasunerako proiektuetarako diru-laguntza jaso duten emakumeen elkarte eta federazioen zerrenda.	87
4. ERANSKINA: diru-laguntzak jaso dituzten emakumeen aurkako indarkeriazko portaerei buruz sentsibilizatzeke eta/edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioen zerrenda.	95

5. ARGAZKIAK 98





1. Sarrera: **Emakunde**



1.1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea. Eginkizuna eta antolaketa

Eginkizuna:

Otsailaren 5eko 2/1988 Legeak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortu zuen, erakunde autonomo administratibo gisa, berezko izaera juridikoarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzara atxikita. Emakunderen egitekoa berdintasun-politikak diseinatu, bultzatu, koordinatu eta ebaluatzea da, politika horietarako aholkua ematea, eta gizartea sentsibilizatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko –benetakoa eta eraginkorra–, Euskal Autonomia Erkidegoko politikagintzaren, ekonomiaren, kulturagintzaren eta gizartearen esparru guztietan.

Erakundeak, berdintasunera bideratuta balioen aldaketaren alde egiteko, bi jarduera-eremu handi ditu: batetik, administrazio publikoekin lan egitea, administrazio horietan berdintasunaren aldeko baliabide pertsonalak eta ekonomikoak sendotuz eta politika publikoetan genero-ikuspegia sartzeko neurriak abian jar daitezela sustatuz; bestetik, gizartearekin orokorrean lan egitea, emakumeen ahalduntzea, gizarte- eta ekonomia-eraldaketa eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako borroka sustatzeko.

Zuzendaritza-organoak:

Emakunderen jarduera gidatzen duten organoak hauek dira:

- Zuzendaritza Kontseilua (urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak arautua), honako kide hauek dituena: Kontseiluburua, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria; Kontseiluburuordea, Emakundeko Zuzendaria, eta Eusko Jaurlaritzako sail hauetako Kontseilukideak: hezkuntza, lana, osasuna, industria, kultura eta gizarte gaiak; foru eta toki-administrazioetako ordezkariak; Eusko Legebiltzarraren ordezkariak eta Emakunderen Aholku Batzordeko ordezkaria.



Izaskun Landaida, Emakundeko zuzendaria

Zuzendaritza Kontseilua 2017an berriro zuten, XI. Legegintzaldiaren hasieran, maiatzaren 17an egindako bileran.

- Zuzendaria (bere eginkizunak 214/2006 Dekretuan daude araututa). Izaskun Landaida Larizgoitiak Emakundeko zuzendari izaten jarraitzen du XI. Legegintzaldian, aurreko legegintzaldian egindako izendapenari jarraikiz (137/2013 Dekretua, urtarrilaren 29koa).



Kudeaketa organoak:

Emakundek kudeaketa-organo hauek dauzka:

- Idazkaritza nagusi bat. XI. Legegintzaldia hasita, Zuriñe Elordi Romero Emakundeko idazkari nagusi izendatu zen (184/2017 Dekretua, ekainaren 27koa).
- Aholkularitza bat. Karmele Jaio Eigurenek prentsa eta komunikazioko aholkulari izaten jarraitzen du XI. Legegintzaldian, X. Legegintzaldian izendatu zutenetik.
- Eremu funtzionalak. Emakunderen barne-antolaketa kudeaketa-arlo funtzional hauetan ezartzen da:
 - Administrazioa
 - Aholkularitza juridikoa eta informazioa
 - Lankidetzatza instituzionala
 - Azterlanak, dokumentazioa eta plangintza
 - Programak eta prestakuntza
 - Emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea
 - Berdintasunaren eta bazterketa ezaren printzipioa defendatzea

Koordinazio-organoak

Emakundek koordinazio-organo hauek dauzka bere egitura organikoaren barruan:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea
- Emakunderen Aholku Batzordea - Emakumeen elkarten partaidetza-organoa
- Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobe egiteko Erakundearteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea
- Begira - Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordea

1.2. Legegintzaldiaren hasiera, erronka garrantzitsuak

Legegintzaldi berria hasten den urtea izanik, Emakundek 2017an mahai gainean izan dituen erronketako bat EAEko Berdintasunerako VII. Plana prestatzen hastea izan da. Horrela, prozesu ireki eta arautua hasi zen, zeina azken urtean zehar gauzatu zen eta non bideak eta uneak zabaldu diren hausnarketarako eta eztabaida politiko, tekniko eta sozialerako; prozesu horretan, garrantzi berezia izan du EAEko elkarte-mugimenduaren parte-hartzeak. VII. Plana gobernuak XI. Legegintzaldirako dituen 15 plan estrategikoetako bat da, eta hori prestatzea erronka garrantzitsua da, kontuan hartuta, batetik, gure herrialdeko administrazio bakoitzak gauzatutako ekintzen inpaktua indartzen duela eta, horrez gain, ibilbide-orri bihurtzen dela, administrazio horiek guztiek berdintasunaren alorreko helburu berak finka ditzaten eta, hala, herrialdeko berdintasun-politika publikoek hitz egiteko aukera izan dezagun.

VII. Planak apustu egiten du aurreko legegintzaldian hasitako lan-ildoak finkatzearen alde; hauek dira lan-ildo horiek: berdintasuna txertatzea erakundean eta euskal administrazio publikoaren funtzionamenduan, emakumeen ahalduntzea sustatzea, gizartea eta ekonomia eraldatzea eta emakumeen kontrako indarkeria prebenitzea. Hori guztia, Genero Berdintasuneko Indizea hobetze aldera, Jaurlaritzaren xedeetako bat baita.

Legegintzaldi hasierako beste erronketako bat azterketa-prozesu bati ekitea izan da, gure erkidegoan emakumeen kontrako indarkeriari erantzun ahal izateko araudi-proposamen berri bat lortzeko. Legegintzaldi honetan Jaurlaritzak dituen konpromisoetan jasotzen diren ekimenetako bat da emakumeen kontrako indarkeriaren arloan esku hartzeko esparru juridikoa eguneratzea eta emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko proiektu bat egitearen komenigarritasuna ebaluatzea, eta 2017an abiarazi da.



Horiek guztiak erronka garrantzitsuak dira, 2017an ere Emakundek sustatu dituenak, gizarte bidezkoago eta parekideagoa eraikitzearen alde egiteko.

1.3. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana egitea 2017an Emakundek izan dituen lehenengo eginkizunetako bat izan da. Izan ere, EAEko berdintasun-politiken sustapenez, aholkularitzaz, plangintzaz eta ebaluazioaz arduratzen



Lehendakaria eta Emakundeko zuzendaria Zuzendaritza Kontseiluan

den erakundea den aldetik, Emakunderi dagokio EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana egitea.

VII. Plana prestatzeko prozesua

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana gauzatzeko, prozesu ireki eta arautu bati jarraitu zaio 2017an zehar; prozesu horretan, hausnarketarako eta eztabaida politiko, tekniko eta sozialerako bideak eta uneak zabaldu dira. Parte hartzeko prozesu osoan bermatu da emakume-mugimenduek parte hartzea, berdintasun-politiken garapenean dauden erantzukizun-maila guztien talde ordezkariak egotea, hizkuntza-eskubideak eta lurralde-ordezkaritza kontuan hartzea eta emaitzak etengabe itzultzea.

Urtarrilean zehazteko fasea hasi zen eta, hartan, barne-hausnarketako lana egin zen berdintasunerako politika publikoen erronka nagusiak identifikatzeko, VI. Planaren eta berdintasunerako Legearen ebaluazioen emaitzen bidez, bai eta EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko Zifren Txostenean identifikatutako desparekotasun-egoera larrienak kontuan hartuz ere. Aldi berean, horri esker plana honako hauekin bat etorrarazi zen: NBEren 2030 Agendan jasotako garapen jasangarriko helburuekin, Europar Batasunaren Genero Berdintasunerako 2016-2019 estrategiarekin eta XI. Legegintzaldiko gobernu-programarekin.

Aurretzako lan horren emaitza modura, planaren oinarri-dokumentua prestatu zen, zeinak VII. Planaren ikuspegi- eta egitura-proposamena jasotzen zuen: Aurreko planen esku hartzeko eredia finkatzaren alde egiten duen egitura, erkidegoan, aldundian eta tokian-tokian garapen handia izan duelako, eta jarraitutasuna emateko VI. Planaren esparruan hasitako edo garatutako prozesuei, denboran jasangarriak izan daitezzen eta ondorioak izan ditzaten.

Bigarren fasean, VII. Planaren oinarri-dokumentutik abiatuta, 2017ko apirilean, maiatzean eta ekainean hainbat lan-saio gauzatu ziren horri buruzko eztabaida tekniko eta soziala egiteko.



- Aurrez aurreko 3 tailer egin ziren udaleko berdintasun-teknikariekin, non parte hartu zuten Eusko Jaurlaritzako sailletako berdintasunerako administrazio-unitateen eta foru-organoen eta tokiko administrazio-unitateen ordezkariak.
- Aldi berean, 6 tailer egin ziren emakume-elkarteetako ordezkariarekin, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Aholku Azpibatzerdeetan, eta horien bidez taldeko hausnarketa-prozesua antolatu zen.

lido horretan, ezinbestekoa da nabarmentzea VII. Plana egitean hasieratik hartu dela kontuan berdintasuneko teknikarien eta emakume-elkarteen ezagutza eta esperientzia, horiek baitira arlo honetako ezagutza aditua osatzen dutenak. Haien hausnarketei eta ekarpenei esker garatu eta zehaztu dira planaren oinarritzko jardunbideak, eta lehenengo zirriborroa osatu eta aurkeztu da, zeina Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluak (maiatzaren 17an) eta Emakunderen Aholku Batzordeak (maiatzaren 22an) onartu zuten.

Hirugarren fasean, uztailean, planari buruz zabalago eztabaidatu zuten politikaren esparruan, Emakunderi atxikitako 3 koordinazio-organoetan. Horretarako, zirriborroa aurkeztu eta baliozkotu zuten Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordean eta Erakundearteko Batzordean (ekainak 27 eta 29), bai eta etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakundearteko Akordioaren Jarraipen Batzordean ere (ekainak 28).

Planaren II. Zirriborroaren laugarren fasea nagusiki azaroan gauzatu zen eta jendaurrean azaltzekoa izan zen; horren helburua informatzea eta herritarrek eta eragile politikoek, ekonomikoek eta sozialek plana prestatzeko prozesuan parte har zezaten ahalbidetzea zen. Horretarako, aurkezpen irekia antolatu zen Bilbon (azaroak 9) eta berariazko gunea prestatu zen Emakunderen webgunean, eragileek beren ekarpenak egin zituzten.

Azkenik, abenduan, VII. Planaren behin betiko dokumentua prestatu zen eta azken fasea abiarazi zen, non Emakunderen Zuzendaritza Kontseiluak eta, azkenik, Gobernu Kontseiluak plana onartu aurretik egin behar ziren txostenak igorri ziren.

VII. Planaren helburua

EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana gobernu-programan XI. Legegintzaldirako aipatutako 15 Plan Estrategikoen artean dago. Horiek oinarri hartuta egituratu eta planifikatuko dira gobernu honek aurreikusita dituen politika publiko gehienak.

Gainera, gobernu-programak XI. Legegintzaldirako jasotzen dituen 15 herri-helburuetako bat Euskadi berdintasunaren arloan Europako lehenengo herrialdeen artean kokatzea da.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren xedea da botere publikoei orientabidea ematea, horien politikek aukera eman dezaten eraldaketa soziala gauzatzeko, egungo eredu androzentrikoaren sostengu eta justifikazio diren balioen eraldaketaren bidez. Horretarako, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna garatu behar da balio bezala, giza aniztasunaren aitortzatik. Badira berdintasuna bermatzen duten lege-mekanismoak (esaterako, 4/2005 Legea, otsailaren 18koa), baina hori pertsonen subjektibitatean txertatzea da VII. Planaren azken helburua, emakumeak eta gizonak berdinak direla eta berdinak izateko eskubidea dutela onar eta barneratu dezaten.

VII. Planaren egitura

Planak eraldaketa soziala sustatu nahi du: hala administrazio publikoaren beraren egiturei eta prozedurei dagokienez, nola herritarrek beren balio sozialak berdintasunaren alde aldatzeari dagokionez. Horretarako, esku-hartzea lau esparruren inguruan antolatzea proposatzen da; esparru horietako bakoitzak bere programak eta helburu estrategikoak eta operatiboak izango ditu.



Esparru horien izena esku-hartzearen aukerekin dago lotuta, hots, jarduketak bideratu beharreko arloekin. Hauek dira esparruak:

- **Gobernu Ona**, zeinaren programazioa erakundeen barrurako begirada izango den, erreferentziako erakunde diren aldetik, antolamenduan eta funtzionamenduan berdintasuna txertatzeko.
- **Emakumeen ahalduntzea**, emakumeen eta neskatuen ahalduntzea bultzatzeko maila guztietan: pertsonalean, kolektiboan, sozialean eta politikoan.
- **Ekonomiak eta gizartearen antolamendua eraldatzea, eskubideak bermatzeko** eta gizarte-eredu jasangarriagoa eraikitzen laguntzeko.
- **Emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko bizitza**, prebentzioa landuz eta bizirik jarraitzen duten biktimei arreta osoa eskainiz erabat oneratu arte.

1.4. Emakumeen kontrako indarkeriaren arloan esku-hartzeko esparru juridikoa eguneratzea

Eusko Jaurlaritzaren programak barne hartzen du legebiltzar-talde guztiek egin duten eskaera, emakumeen kontrako indarkeriaren arloan esku hartzeko esparru juridikoa ebaluatzeko; esparru juridiko hori emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen VII. kapituluan jasotzen da. Halaber, programak emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko Lege Proiektua prestatzeko komenigarritasuna baloratzen du.

Testuinguru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoak konpromisoa hartu du genero-indarkeriaren biktime diren emakumeen eta horien seme-alaben giza eskubideak bermatzeko eta babesteko, bai eta indarkeria hori prebenitzeko ere. Horregatik, legeria eguneratzeko prozesuari ekin dio 2017an eta, horretarako, eremu horretan nazioartean, European eta Estatuan garatu diren giza eskubideen azken estandarrak sartu ditu. Emakunderen ardurapean utzi da zeregin hori, eta parte hartze bidezko diagnostiko-tailerren deialdi bat eginez ekin dio lanari,



Parlamentuko agerraldia

emakumeen aurkako indarkeriari erantzuteko euskal araudia eguneratzeko asmoz. Guztira, parte hartzeko 5 tailer egin dira: horietatik hiru gizarte zibilari zuzenduak, lurralde historikoko hiriburu bakoitzean bat; beste tailer bat Erakundearteko II. Akordioko Erakundearteko Talde Teknikoarentzat eta Harrera Baliabideen Talde Teknikoarentzat; eta beste tailer bat euskal Administrazioako hiru mailetako berdintasun-langileentzat.



1.5. Emakundeko Zuzendaritza Kontseilua

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak araudiak eskatzen dituen dokumentuak onartu zituen 2017ko maiatzaren 17ko bilera:

- EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko Zifren Txostena, 2016.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana Botere Publikoen Alorrean Gauzatzeari buruzko Jarduera Txostena – 2015.
- Emakunderen jarduketa-memoria, 2016koa.

Era berean, Kontseiluari honako hauen berri eman zitzaion: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen ebaluazio-prozesua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako EAEko VII. Planaren prestaketa-prozesua eta 2017rako Emakunderen Jarduketa Planeko esku hartzeko lerroak, horren aurrekontua eta laguntza eta diru-laguntzen deialdien izapidetze-egoera.

1.6. Eusko Legebiltzarrarekiko harremana

Emakunderen eta Eusko Legebiltzarraren arteko harremana etengabea eta joria da. 2017an, agerraldia egin da Ogasun eta Aurrekontu Batzordean eta bi agerraldi Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordean, eta erantzuna eman zaie zortzi legez besteko proposamenei eta hamasei legebiltzar-galderari.

Era berean, honako txosten hauek bidali dira, Eusko Legebiltzarrak horien berri izan dezan:

- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 2015eko ebaluazio kualitatiboa
- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen betetze-, garatze- eta ezartze-mailaren 2015eko jarraipena

- Euskadiko administrazio publikoen kontratu eta diru-laguntzetan berdintasun-klausulak aplikatzeari buruzko jarraipena eta ebaluazioa egiteko azterlana
- Ebaluazio bat: araugintzan generoaren araberrako eraginaren aurretiko ebaluazio-prozesuak eta EAEko emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta desberdintasunak ezabatzeko neurriak sartzeko prozesuak
- EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko Zifren Txostena, 2016
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana Botere Publikoen Alorrean Gauzatzeari buruzko Jarduera Memoria– 2015
- Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen 2015eko eta 2016ko Jarduera Memoria
- Berdintasun- eta diskriminaziorik ezaren printzipioen arloko 2016ko Jarduera Memoria
- Begira, publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholkularitza Batzordearen 2016ko Jarduera Memoria

Eusko Legebiltzarrari aholkua eman zaio emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako egin duten lehen plana prestatzeko.

1.7. Berrikuntza publikoa eta kudeaketa aurreratua

Eusko Jaurlaritzaren 2014-2016ko Berrikuntza Publikoko Planaren esparruan, gardentasuna eta irekiera, eraginkortasuna eta efizientzia eta berrikuntza eta herritarren parte-hartze aktiboa hobetzeko zerbitzuak ematean, Emakundek honako jarduketa hauek egin ditu 2017. urtean:

Kudeaketa publiko aurreratuaren eredua: Aurrerabide proiektuaren esparruan, Eusko Jaurlaritzaren Kudeaketa Aurreratuko Eredua (EJKAE) ezartzekoan, 2016ko Jarduketa Plana ebaluatu da eta 2016-2018 Sendotze eta Hobetze



Plana prestatu eta gauzatu da. Garatutako beste jarduketa batzuen artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

- Interes-talde nagusiek Emakunderekiko duten gogobetetasun-maila eta itxaropenak ezagutzeko ikerketa kuantitatiboa nahiz kualitatiboa amaitu da. Hauek dira interes-talde horiek: euskal administrazio publikoetako berdintasunerako teknikariak eta erakundearekin lankidetzan aritzen diren enpresak eta emakume-elkarteak. Ikerketa horretatik abiatuta, 2017an berriazko lana gauzatu da Eusko Jaurlaritzako berdintasun-teknikariekin, hautemandako hobekuntzak ezartzeko, eta espero da etorkizunean gainerako interes-taldeekin ere gauzatzea.
- EJKAE ebaluatzeko esperientzia pilotuan parte hartu da.
- Erakundearen Barne Komunikazioko Plana eta Harrera Plana garatu da.
- Emakunderen zerbitzu-katalogoa prestatu da.
- Agenda partekatua eta barneko iradokizun-ontzia sortu dira.
- Gardentasunari buruzko mintegia antolatu da DACIMArekin elkarlanean, eta erakundearen webgunean gardentasun-ataria argitaratu da, abenduaren 9ko 19/2013 Legean (gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa) ezarritakoa betetze aldera.
- Emakundeko hiru pertsonak parte hartu dute Aurrerabideren kolaboratzaileen sarean.
- Q-Epea taldeak urtero Kalitatearen Europako Astearen barruan antolatzen duen jardunaldian parte hartu da, eta ezagutzera eman da Emakundek kudeaketa publiko aurreratua ezartzeko gauzatutako lana.

Demokraziari eta Herritarren Partaidetzari buruzko Liburu Zuria:

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen partaidetza-ebaluazioa jardunbide egokitzat hautatu zuen, Eusko Jaurlaritzak Demokraziari eta Herritarren Partaidetzari buruzko Liburu Zuriaren konpromisoak betetzeko sustatuko partaidetzaren/lankidetzaren barruan; horregatik, aukera eman zitzaion bere esperientzia azaltzeko Elkarlan 2016 Sariak emateko ekitaldian, 2017ko ekainaren 16an, Bilbon. Aipatutako ebaluazioa Parte Hartuz ikerketa-talde kontsolidatuak egin zuen Emakunderentzat.



Elkarlan Sariak





Txantxangorria

Onda Cero Saria: Emakundek Onda Ceroren Saria jaso zuen, Lan Soziala eta Solidarioagatik ematen dutena, irailaren 27an Gasteizko Artium Museoan egindako ekitaldian.

1.8. Euskararen erabilera normalizatzea

Euskararen erabilera normalizatzeko Emakunderen Plan Orokorren amaierako ebaluazioa egin da. Halaber, 2016ko Kudeaketa Plana ebaluatu da eta 2017 urteari dagokion Kudeaketa Plana prestatu eta gauzatu da, hainbat jardura eta ekimenen bitartez: ELEBI programan parte hartu da, prestakuntza eman eta mintza-taldeak sortu dira, hainbat taldetan Aldahitz metodologia aplikatu da, txantiloak eta dokumentuak berrikusi dira, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren jardunbide egokien buletinean kolaboratu da, Euskararen eguna ospatu da Kike Amonarrirek emandako sentikortze-saio batekin, etab.

Gainera, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin lankidetzan, Bikain ziurtagiriaren proba pilotu batean parte hartu da eta, HAKOBA batzordearen esparruan, «Euskararen Bidegorriak» proiektua martxan jartzen lagundu da; proiektu horren asmoa euskal administrazio publikoetako langileen artean idatzizko eta ahozko euskara sustatzea da. Lankidetzan horretan, hasierako esperientzia pilotua gauzatu da, berdintasuneko teknikariak ardatz dituen; arrakasta izanez gero, etorkizunean administrazio horietako beste sektore profesional batzuetara zabal daiteke.





2. **Administrazio Publikoen** esparruan egindako jarduerak



Administrazio publikoekin egindako lana Emakunderen jarduera-esparru handietako bat da. Esparru horretan politika publikoen sustapen, koordinazio, aholkularitza eta jarraipeneko ekintzak egiten ditu, eta gizarteak politika horietan parte har dezala sustatzen du. Atal hau botere publikoen bidez eginiko ekintzei buruzkoa da, batez ere administrazioko hiru mailetan, eta estatuko, Europako eta nazioarteko erakundeekiko harremanen esparruan. Sustapeneko eta koordinazioko egitura organikoaren esparruan egiten diren ekintzak bereizten ditu, alde biko beste harreman-testuinguru batzuetan egiten direnak, eta prestakuntza eta aholkularitza, laguntza-dokumentuak egitea, txostenak egitea eta abar helburu dituzten beste batzuk.

2.1. Sustapena, aholkularitza eta erakundeen koordinazioa

2.1.1. Administrazio autonomikoa

Emakundek Sailarteko Batzordearen bidez betetzen du, nagusiki, Eusko Jaurlaritzaren barnean berdintasun-politikak sustatzeko eta aholkatzeko eginkizuna.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea

Batzorde hori, 4/2005 Legean jasoa eta gaur egun abenduaren 26ko 261/2006 Dekretuaren bidez arautua, Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean gauzatzen dituen jarduerak koordinatzeko organoa da. Emakunderi atxikita dago; batzordeko presidentea Eusko Jaurlaritzako lehendakaria da, eta batzordeko presidenteordea, Emakundeko zuzendaria. Erakundeko Idazkaritza Nagusiak idazkaritza-funtzioak betetzen ditu eta kide gisa parte hartzen dute Lehendakariatzako idazkari nagusiak eta Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko sailburu batek.

Sailarteko Batzordeak ohiko bilkura bat egin zuen 2017ko ekainaren 27an. Bertan, honako dokumentu hauek aurkeztu ziren:

- Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan 2015ean egindakoaren jarraipenari buruzko txostena
- EAEko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Planaren lehen irriborrea

– Eusko Jaurlaritzako sailen 2017ko programa-dokumentuak

– Emakunderen Jarduketa Plana – 2017

Gainera, Sailarteko Talde Teknikoak 2016ko aurreko bileraren eta 2017ko bilera honen artean gauzatutako lana azaldu zen.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordea arautzen duen dekretuan xedatzen denarekin bat, Batzorde honek Sailarteko Talde Tekniko bat du, eta horren helburua da Batzordeko kideei laguntza eta aholkularitza teknikoa eskaintzea, bere esku uzten diren gaiak aztertuz, txostenak osatuz eta proposamenak eginez.

Emakundek sustatzen eta koordinatzen du Sailarteko Talde Teknikoa eta, sail arteko bileren bidez nahiz alde biko bileren bidez, sail bakoitzari dagozkion sektoreko politikak aztertzen laguntzen dio; horretarako, berdintasuna bultzatzen duten helburuak identifikatzen ditu, jarduera-estrategiak zehazten ditu, eta sail bakoitzaren eta Jaurlaritza osoaren berdintasun-politiken plangintzarako, garapenerako eta jarraipenerako tresnak proposatzen ditu.





Berdintasunerako Sailarteko Batzordea

Aholkularitza eta informazioko lanean, Jaurlaritzako sailek, erakunde autonomoek eta ente publikoek egindako kontsultei erantzun zaie. Halaber, proiektu zehatzak gauzatzeko lankidetzak eman da; batez ere, materialak berrikusteko eta prestatzeko edota genero-ikuspegia barne hartzen duten sektore-ekintzak abian jartzeko. Gainera, berdintasunerako politiken plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa hobetzeko proposamenak egin dira.

Hauak dira Emakundek Sailarteko Lantalde Teknikoaren alorrean 2017. urtean egindako ekintza zehatzak:

- Bilerak antolatu, prestatu eta koordinatu ditu, baita horien jarraipena egin ere.
- Sailarteko Batzordean ordezkariak izendatzeko prozesuaren berri eman du.
- Sailaren urteko programa-dokumentua prestatzeko prozesuaren eta epearen berri eman du.
- Eusko Jaurlaritzako sailen eta botere publikoen jarduketaren jarraipen-txostenei egindako ekarpenen berri eman du.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren diseinuaren berri eman du; halaber, lan-egutegiari eta sailen parte-hartze politikoa eta teknikoa eskatzen zuen partaidetza-prozesuaren faseei buruz jakinarazi du.
- Saitetako berdintasun-teknikariek Emakunderi dagokionez duten gogobetetasun-mailari eta itxaropenei buruzko ikerketa kualitatiboa aurkeztu du eta, ikerketa horretan oinarrituta, hobekuntza-proposamenak egin ditu.
- Ikerketa horretan hautemandako beharrei erantzuteko hainbat neurri hartu dira; besteak beste, 3 Lantalde Tekniko (LT) sortu dira: LT1, plangintza eta ebaluazioa hobetzeko; LT2, XI. Legegintzaldira begira lehentasunak identifikatzeko; LT3, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko, barne hartuta berdintasunerako administrazio-unitateetako aurrekontu-esleipena finkatzea eta hobetzea.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen bileraren berri eman du.
- Emakunderen webgunean egindako hobekuntzen berri eman du; zehazki, jakinarazi du Berdintasuna Politika Publikoetan atalean dokumentazioa izeneko atal berria sortu dela.



- Genero-ikuspegia duten aurrekontuei buruzko tailerraren berri eman du; aipatutako tailerra Ogasun eta Ekonomia Sailak, HAEEK eta Emakundek antolatu dute, modu koordinatuan.
- Berdintasun-politiken esparruan euskararen erabilera sustatzeko proiektuaren berri eman du.

Beste sailekin egindako proiektuak eta lankidetzako ildoak

Sailarteko Talde Teknikoarekin egiten den lanaz gainera, Emakundek alde biko lana egiten du zenbait sailetan eta horiekin lotuta dauden edo lotura duten erakunde eta entitateekin, funtsean proiektu eta zeregin zehatzetan duten eskariak kontuan hartuta. 2017. urtean, jarduera hauek nabarmendu behar dira:

- Hainbat saili atxikitako kontseilu eta batzordeetan parte hartu du: Publizitateko Sailarteko Batzordea, Bake eta Bizikidetzeta Planaren Sailarteko Batzordea, Euskadiko DEAREN Sailarteko Informazio Batzordea, Euskal Estatistika Kontseilua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua, Etorkinak gizarteratzeko eta horien partaidetza sozialerako Kontseilua, Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua, Droga-menpekotasunen Aholku Batzordea, Landa Emakumeen Batzordea eta Familiaren Euskal Kontseilua.
- Hezkuntza Sailarekin batera, euskal hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planaren jarraipenean esku hartu du: Jarraipen Batzordean zein Batzorde Teknikoan parte hartu du, eta, horretaz aparte, interesa agertu duten ikastetxeei Nahiko eta Beldur Barik programak ezartzeko materialak, prestakuntza, aholkularitza eta laguntza eman die doan¹.
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarekin, aholkua eman da Administrazio Orokorreko eta horien erakunde autonomoetako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I. Barne Planaren ezarpenari buruz, aholkularitza teknikoa emanez.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3.4 eta 14. artikuluetan jasotakoari jarraikiz genero-azterketa aurrekontu-prozesuaren maila guztietan sartzeko lan-metodologia hobetzeko eta berriz diseinatzeko prozesua gauzatu da Ogasun eta Ekonomia Sailarekin. 2017an, jarraibide ekonomikoak eta teknikoak sartu dira, aurrekontuak egiteko, emakume eta gizonen berdintasunarekin lotutako alderdiak eta, zehazki, aurrekontu-programen genero-eragina ebaluatzeko inprimakia. Genero-ikuspegia duten aurrekontuei buruzko tailerra diseinatu da, HAEEekin modu koordinatuan, eta horri buruzko prestakuntza eman da.
- Berdintasunaren eta feminismoaren eremuan euskarazko terminologia lantzeko eta kontsultarako tresna bat sortzeko proiektu bat abiarazi da, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin. Halaber, kirolaren arloko profesionalentzako jardunaldi bat antolatu da, emakume kirolarien gaineko informazioaren tratamendua aztertzeko, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarekin elkarlanean.
- Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin elkarlanean aritu da Basque Country Estrategia garatzeko.
- Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritzarekin eta Ekonomia Zuzendaritzarekin elkarlanean aritu da, egitura-funtsean esparruan².
- Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskaritzarekin, enpleguan sexuagatiko bereizkeriarekin amaitzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko lankidetzeta-hitzarmena martxan jartzeko jardun da lankidetzan.
- Baita Osalanekin ere, lankidetzeta-hitzarmena martxan jartzeko eta hitzarmen horren garapena sustatzeko lantalde bat sortzeko.
- Elkarlanerako hitzarmena sinatu da EUSKALIT - Kalitaterako Euskal Erakundearekin, kudeaketa aurreratuan genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko.

1. Programei buruzko xehetasun gehiago, 3.4.1 eta 3.4.2 ataletan
 2. Ikus «Europako erakundeak eta programak», 2.1.3 atalean..



- Osakidetzarekin elkarlanean aritu da, erakundeetan eta zerbitzu-prestazioan emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana gauzatzeko hasteko aholkularitza emanaz.
- Eustat-Euskal Estatistika Erakundearekin elkarlanean aritu da Europar Batasuneko berdintasun-indize europarra kalkulatzeko.
- IHOBerekin elkarlanean aritu da, administrazioaren kontratazioan berdintasunaren eta ingurumenaren arloko klausulak sar daitezen sustatzeko.
- Gazteen Euskal Kontseiluarekin tekniko eta ekonomikoki elkarlanean aritu da, genero-ikuspegia txertatzeko funtzionamenduan eta bi erakundeen artean lankidetzaren egonkorreko esparrua ezartzeko. Hori guztia, 2014an Eusko Legebiltzarreko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Kontseiluak onetsitako lege besteko proposamenari erantzuteko; bertan, Emakunderi eskatzen zaio Euskadiko Gazte Kontseiluari aholkularitza eta laguntza eskaintzeko modu egonkorrean eta etengabe berdintasunaren arloan, erakunde horrek osorik ekiteko genero-ikuspegiari jarduketan guztietan.
- KZguneekin elkarlanean aritu da diru-laguntza deialdien telezapidetze-prozesuari buruz emakume-elkarteentzako prestakuntza martxan jartzeko.



EUSKALITekin hitzarmena sinatzea



Plan eta programa sektoriale buruzko txostenak eta aholkularitza

Politika orokorretan genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko beste mekanismo bat Eusko Jaurlaritzako Sailek bultzatutako eta garatutako plan sektorial batzuei eta besteei dagokienez aholkua ematea eta ekarpenak, txostenak edo lan-bilerak egitea da. 2017an plan hauetan lagundu da, haiei buruzko txostenak egiteaz gain:

- III. Gazte Plana 2020: 2016ko Jarraipen Txostena eta 2017ko Urteko Plana; III. Gazte Planaren ebaluazioa eta hurrengo planean parte hartzea
- Familien eta haurren aldeko euskal ituna
- 2017-2020 Enplegu Plana
- EAEko Adikzioen VII. Plana, 2017-2021
- Euskal Estatistika Plana 2018-2022

Genero-inpaktuaren aurretiko ebaluazioa

Generoaren eraginaren alde aurretiko ebaluazioa genero-ikuspegia politika publikoetan sartzeko oinarritzko neurrietako bat da, eta hala geratzen da ezarrita Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legean. Zortzigarren xedapen gehigarria betetzeko, Gobernu Kontseilua da aipatutako ebaluazioa egiteko gidalerroak onesten dituen. Gaur egun, 2012ko abuztuan onetsitako gidalerroak daude indarrean.

Emakundek 2007an sailek generoaren araberako eraginaren txostenak ongi egin zituztela egiaztatzeko eta hobekuntzak proposatzeko hasi zuen lanari dagokionez, Emakundek 69 espediente jaso eta aztertu ditu 2017an. Hurrengo taulan, urteetan zehar izandako bilakaera ikus daiteke.

2006-2017 DATUAK

	Legeak	Dekretuak	Aginduak	Ebazpenak	Guztira
2006	0	1	0	0	1
2007	17	57	25	1	100
2008	19	75	81	4	179
2009	4	66	45	5	120
2010	14	55	51	8	128
2011	27	71	47	4	149
2012	6	106	39	3	154
2013	6	43	18	1	68
2014	12	43	29	1	85
2015	12	62	36	2	112
2016	2	32	34	2	70
2017	4	39	25	1	69
Guztira	123	650	430	32	1.235

Bestalde, 4 gidaliburu sektorial prestatu dira generoaren araberako inpaktu-txostenak egiteko, gai haiei buruz: gizarte-bazterkeria, kultura, hirigintza eta justizia.



Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Erakunde Publikoen Sarea

Berdintasunaren aldeko Erakunde Publikoen Sarea dinamizatu dugu, Eusko Jaurlaritzaren SharePoint plataformaren barruan online, Eje SArekin eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko berdintasun-unitatearekin lankidetzan. Erakunde publikoetan berdintasun-politikak bultzatu, indartu eta koordinatzea ditu helburutzat sareak, ikaskuntza partekatuaren eta elkarlaneko lanaren bitartez. Gaur egun, Sarea honako 25 erakunde hauek eratzen dute:

- | | |
|---|-----------------------------|
| 1. GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA | 14. HAURRESKOLAK PATZUERGOA |
| 2. ALOKABIDE | 15. HAZI |
| 3. BASQUETOUR | 16. IHOBE, S.A. |
| 4. CEDEMI | 17. ITELAZPI |
| 5. CEIA | 18. IZENPE |
| 6. EJE | 19. METRO BILBAO |
| 7. ELIKA | 20. NEIKER |
| 8. ERAKUNDE ZENTRALA-OSAKIDETZA | 21. EUSKADIKO ORKESTRA SA |
| 9. ETXEPARE EUSKAL INSTITUTOA | 22. SPRI |
| 10. EUSKADIKO KIROL PORTUA | 23. UNIBASQ |
| 11. EITB, EUSKAL IRRATI TELEBISTA | 24. URAREN EUSKAL AGENTZIA |
| 12. EUSKO TRENBIDE SAREA | 25. VISESA |
| 13. EUSKOTREN, S.A. | |

Otsailaren 20an, Sareak prestakuntzako eta trukeko jardunaldia gauzatu zuen, Hezi, Neiker eta Erika erakundeekin lankidetzan, izenburu honekin: «Genero-ikuspegiaren aplikazioa laneko segurtasun eta osasunean». Emakundek esku-hartzea egin zuen, zeinetan sareko erakundeen egungo egoeraren azterketaren emaitzak aurkeztu zituen; ondoren, bi hitzaldi egin ziren: lehenengoa, Nora Maria Martinez Yañezen eskutik, «Hacia una prevención de riesgos laborales con perspectiva de género en la empresa» eta, bigarrena, Edurne Lopez Rubiaren

eskutik, «Presentación del nuevo Protocolo de Acoso Sexual y por Razón de Sexo». Jardunaldia amaitzeko, Arkauteko baserri-eskolaren bisita gidatua egin zen, erakunde antolatzaileen eskutik; hain zuzen ere, bertan egin zen jardunaldia.

Azaroaren 29an eta abenduaren 20an bi lanaldi egin ziren, 2017rako eta 2018rako aurreikusitako topaketen barruan; lanaldiok erakunde bakoitzaren aurrerapenera egokitutako lan-guneak dira. Lehen topaketa horretan, Marixe Noya Arrizabalagak eta Dominique Saillard Bouyssié-k egin zituzten esku-hartzeak.



Berdintasunerako erakunde publikoen sarea



2.1.2. Foru- eta toki-administrazioa

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordea

Batzordea, 4/2005 Legean jasoa eta gaur egun urtarrilaren 16ko 5/2007 Dekretuaren bidez arautua, administrazio autonomikoak, foralak eta tokikoak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean gauzatzen dituzten jarduerak koordinatzeko organoa da. Emakunderi atxikita, zuzendaria da buru eta euskal administrazio publikoko hiru mailetako ordezkariak zati beretan eratzen dute.

Sailarteko Batzordeak 2017ko ekainean ohiko bilera egin zuen, eta gai hauek landu zituen:

1. EAEko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Planaren lehen zirriborroa aurkeztea.
2. Lantalde Teknikoek (LT) gauzatutako jarduerari buruzko informazioa ematea eta talde berriak eratzeko proposamenak aztertzea. Bi lantalde tekniko berri sortu dira: bata, Berdintasuneko Jardunbide Egokien Bankuari buruzkoa eta, bestea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politiken gutxieneko kalitate-estandarrak zehazteko eta haien erakundearteko koordinazioa hobetzeko.
3. Erakundearteko Talde Teknikoan eta Lantalde Teknikoetan parte hartuko duten pertsonak izendatzea.

Erakundearteko Batzordea arautzen duen Dekretuan xedatuta dagoenaren arabera, Batzorde honek Erakundearteko Talde Tekniko bat du eta hark aztertu, txostenak osatu eta proposamenak egiten ditu, eta Batzordeko kideei laguntza eta aholkularitza teknikoa ematen dizkie, autonomia-erkidegoko, foru-aldundietako eta udalerrietako administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan garatzen dituzten politika eta programak koordinatzeko zereginen.

Halaber, Erakundearteko Batzorde horren esparruan, Emakundek Lantalde Tekniko (LT) hauek bultzatu eta koordinatu ditu, 2011n sortu zirenetik:

- **Sektore publikoaren hitzarmen, diru-laguntza eta kontratuetan berdintasun-neurriak aplikatzeko irizpideak eta bitartekoak** LT horren esparruan, 2017an bilera bat egin da, non Emakundek Washingtonen Garapenerako Banku Inter-amerikarrarekin izandako esperientzia ezagutarazi eta partekatu duen, ezagutzera emateko euskal administrazioek kontratazio publikoan berdintasun-klausulak txertatzeko egindako lana, hain zuzen ere, banku horrek nazioarteko jardunbide egokitzat jotzen duena. Gainera, Emakunderen webgunean kontratueta eta diru-laguntzetako berdintasunari buruz dagoen atalaren edukia aztertu da, atal horretako edukia birbanatu eta osatze aldera, eguneratzeko eta eskuragarriago egiteko xedez.
- **Generoaren arabeko eraginaren ebaluazioak egiteko eta aplikatzeko irizpideak** Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sareari EAEko hainbat udalen, foru-aldundien, EUDELen eta Emakunderen artean abiarazitako lan-prozesua helarazi zaio, Lantalde Tekniko honen esparruan. Prozesu horrek ildo eta tresna batzuk prestatzea eta garatzea du helburu, euskal udaletan generoaren arabeko inaktuaren alde aurretiko ebaluazioak egin daitezten.

Bestalde, EAEko udalenzako eta aldundientzako informazio- eta aholkularitza-lana burutu da.

Sailarteko Batzordearen esparruan egindako lanaz gainera, Emakundek udalenzako beste lankidetzak eta laguntza-ildo batzuk ditu.



Berdinsarea - Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea

Sare hori Emakunderen bultzadarekin sortu zen eta 2005ean EUDELein (Euskadiko Udalen Elkarte) sinatutako lankidetzeta-hitzarmen baten bidez jarri zen martxan. Horren bidez, Emakundek konpromisoa hartu zuen sarea dinamizatuko duen berdintasunerako eragile bat kontratatuzeko finantzaketan parte hartzeko, eta EUDELek konpromisoa eman zuen hori sortu eta kudeatzeko, orobat hori garatzeko beharrezko jarduerak gauzatzeko.

Sare horrek honako organo hauen bidez funtzionatzen du:



Virginia Woolf Basqueskola

- Jarraipen Batzordea, EUDELeko eta Emakundeko ordezkariak osatzen dutena. Honako ardura hauek ditu: hitzarmenaren jarraipena egitea, Sarearen jarduerak gidatzen duten gidalerroak finkatzea eta haren lehentasunak azaltzea lan-plana egitean, Jaurlaritzaren eta gainerako erakundeen politikekiko koherentea izan dadin eta koordinatuta egon dadin.
- Osoko Bilkura Sarearen gobernu-organoa da, eta sarea osatzen duten udal guztietako tokiko hautetsiek osatzen dute.
- Batzorde Teknikoa udalerrri bakoitzak izendatutako berdintasuneko teknikariek osatzen dute, bai eta Sarearen idazkaritza teknikoaz arduratzen den teknikariek eta Emakundeko teknikari batek ere.

Hauak izan dira, zehazki, 2017an Emakundek egindako ekintzak:

- Berdinsarea garatu eta finantzatzeko EUDELein sinatutako hitzarmena berri du.
- Udaletan berdintasun-politikak sustatzeko ardura duten politikariek eta teknikariek lan egin du.
- Jarraipen Batzordearen bileretan parte hartu da eta hartutako akordioek jarraipena egin du.
- Berdinsarearen batzorde teknikoetan parte hartu du eta onartutako akordioek jarraipena egin du.
- Virginia Woolf Basqueskola emakume politikarientzako eskolaren 2017ko programazioak barne hartzen dituen jardueren garapenaren jarraipena egin du.
- Emakumeen aurkako Indarkeriaren Batzordearen lan-saioetan parte hartu da.
- Tokiko esparruan, generoaren araberako inpaktuaren alde aurretiko ebaluazioak ezartzeko prozesuan parte hartu du.



Berdinbidean - biztanle gutxiko udalerriei berdintasun-politiketan aholkatzeko eta dinamizatzeke zerbitzua

Berdinsareak lan handia egin du berdintasun-politikak sustatzeko, batez ere jende ugari bizi den udalerrietan. Hala ere, udalerrri txiki gehienentzat zaila da sare horretan sartzea, sartzeko betekizunengatik –besteak beste, langileak kontratatu, berdintasun-planak egin eta berdintasun-politiketarako aurrekontuei buruzkoak–.

Ikusita udalerrri txikiek arazoak dituztela emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean aurrera egiteko planak, programak eta ekintzak lantzeko, laguntza programa espezifiko jarri zuen martxan Gipuzkoako Forua Aldundiak, gerora Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiek ere ezarri zutena. Horrela, sortu zen foru aldundien partetik Berdinbidean programa, hiru lurralde historikoetako udalerrri txikietan berdintasun-politikak dinamizatu eta aholkatzeko zerbitzuak martxan jarri ahal izateko. Honako hauek dira zerbitzu horien helburuetako batzuk:

- Udal txikienek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko politikak martxan jartzeko aukera izatea, Berdinsarearekin koherentea den estrategia bati jarraikiz, eta sare horretara epe ertainera sartzeko aukera ematea.
- Udalerrietan, mankomunitateetan, eskualdeetan edo kuadrilletan elkarrengana hurbil daitezen, esperientziak truka ditzaten, koordinatu daitezkeen eta elkarrekin jarduerak egin ditzaten erraztea.

Jarduera hauek egiten dira, adierazitako helburuak betetzeko:

- Laguntza teknikoa ematen zaie udalerrri txikiei, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko programak eta ekintzak egin ditzaten.

- Lurralde edo/eta eskualde mailan lan egiteko guneak sortzen dira, udalerrri txikietan esku hartzeko estrategiak ezartzeko, esperientziak trukatzeko eta egindako lanaren jarraipena egiteko. Horren guztiaren xedea da parte hartzen duten udalerrrien arteko sinergiak sortu edo indartzea.

2011. urteaz geroztik, Emakundek hiru lurraldeetako udalerrri txikietan jarduerak egiteko finantzaketan parte hartu du, Eudelekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmen baten bitartez.

Europako Udalerrri eta Eskualdeen Kontseiluko Berdintasun Batzordearen buru izateko Eudeleri emandako diru-laguntza

Europako Udalerrri eta Eskualdeen Kontseilua (EUEK) 1951. urtean sortu zen, eta Europako tokiko eta eskualdeetako gobernuen erakunderik handiena da. 41 herrialdeetako 60 erakundek osatzen dute eta horiek 150.000 udalerrri baino gehiago ordezkatzeko dituzte. Kontseilu horrek Europa elkartu bat sustatzeko lan egiten du, tokiko eta eskualdeko autogobernua eta demokrazian oinarrituta.

2015eko ekainaren 26an, Europako Udalerrri eta Eskualdeen Kontseiluak bere Berdintasun Batzordearen Lehendakaritza helarazi zion Eudeli, eta hark kide diren herrialdeetako berdintasun-politiken organo koordinatzaile goren gisa jarduten du gaur egun. 2018ko ekainera arte Batzordeko lehendakaria izango da Ibon Uribe, Galdakaoko alkatea eta Eudelen Berdintasunerako Exekutibaren ordezkaria.

EUEKren Berdintasunerako Lehendakaritzak nolabaiteko bermea ematen die euskal udalerrriek eta euskal herritarrek egindako lanari eta ibilbideari. Horrez gain, euskal erakunde guztiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egindako lan guztia aitortzen du. Lehendakaritzak eragindako premia eta itxaropen guztiei erantzun ahal izateko, Emakundek diru-laguntza bat eman dio Eudeli. Haren bitartez, Eudelek EUEKren funtzionamenduan eta Berdintasun arloko Europako politikan aditua den nazioarteko aholkulari bat kontratatu du.



Udalerriei, kuadrillei eta mankomunitateei diru-laguntzak emateko deialdia, emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta/edo planak egin eta ebalua ditzaten

Diru-laguntzen deialdiak dira Emakundek udalerriei laguntza tekniko emateko erabiltzen duen beste tresna bat. Tokiko erakundeei ematen zaizkie diru-laguntza horiek, emakumeek eta gizonak udalerrietan bizi duten egoeraren diagnostikoak egiteko, eta tokiko planak egiteko eta ebaluatzeko, EAerako Esparru Planaren ildo nagusiei jarraituz. 2017an egin den deialdian kopuru ekonomikoa 360.000 eurokoa izan da, abenduaren 15era arte egin diren proiektuak finantzatzeko.

25 udalerriri eta 8 mankomunitate, kuadrilla eta/edo talderi dagozkien 33 proiektu diruz lagundu dira³.

Berdintasun-planak, txostenak eta aholkularitza

Emakunde sortzeko legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak ezarritakoaren arabera, Emakundek EAEko berdintasun-politketarako jarraibide orokorrak jasotzen dituen plan orokor bat egin behar du, legegintzaldi bakoitzaren hasieran. Lege horretan bertan jasotakoari jarraikiz, sail guztiek, organismo autonomoek, foru aldundiek eta udalek beren planak plan orokor horretan ezarritako jarraibideen arabera prestatu behar dituzte.

Gainera, 4/2005 Legearen 15.4 artikulua ezartzen duenez, Emakundek Eusko Jaurlaritzako sailen eta foru- zein toki-administrazioen berdintasun-planei buruzko txostenak egin behar ditu, eta txosten horietan, planen edukiak Gobernuaren plan orokorreko esku-hartze eta jarraibideetara egokitzen diren adierazi.

Txosten horiek egiteko, Emakundek hainbat irizpide hartzen ditu kontuan, planak Legearen edukien eta Jaurlaritzak onetsitako plan orokorreko helburu eta estrategien arabera diseina daitezten: erakunde bakoitzaren berezko beharizanen diagnostikoan oinarrituta egotea, alderdi teknikoan, alderdi ekonomikoan eta

denbora aldetik plan bideragarriak izatea, eta diagnostikoan definitutako errealitate sozialaren aldaketari egokitutako estrategia, helburu eta ekintzak definitzea.

Aurten emakumeen eta gizonen berdintasunerako 6 udal- eta foru-plani buruzko txostenak egin dira..

Hauexek dira:

Lehen Planak	Bigarren Planak	Hirugarren Planak	Laugarren Planak	Bosgarren Planak
	DURANGOKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA 2017-2019		ELORRIOKO IV. BERDINTASUN PLANA 2017-2023	
	ENKARTERRI MANKOMUNITATEKO EMAKUME ETA GIZONEN II. BERDINTASUN PLANA, 2017-2020		GETXOKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANA 2017-2020	
	BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA 2017-2019			
	USURBILGO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA 2017-2020			

3. Ikus proiektuak 1. eranskinean: emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal-planak eta mankomunitateen planak.



Foru- eta toki-administrazioen esparruan beste lankidetzak hauek dira aipatzekoak:

- Bizkaiko Foru Aldundiaren Genero Indarkeriaren Behatokia parte hartzea;
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Giza Eskubideen Zuzendaritzak Irungo eta Hondarribiko Alardeei buruz antolatutako erakundearteko gunean parte hartzea; eta
- Gasteizko Udalaren Berdintasun Plana prestatzeko adituen taldean parte hartzea.



Erakundearteko II. Akordioaren Jarraipen Batzardea

2.1.3. Beste erakunde eta antolakunde batzuekiko koordinazioa eta lankidetzak

Alde batetik, administrazio autonomikoarekin duen harremanaz gainera, eta, bestetik, toki- eta foru-administrazioekin duenez aparte, Emakundek gure gizartea osatzen duten beste erakunde eta instituzio batzuekin koordinazioan jarduteko eta parte hartzeko egitura egonkorra ditu.

Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearteko II. Akordioaren Jarraipen Batzardea

2009ko otsailaren 3an, etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundearteko II. Akordioa sinatu zen, eta Jarraipen Batzardea eratzeko erabakia hartu zen bertan. Akordioaren arabera, honako hauek dira, besteak beste, Batzardearen eginkizunak: Akordioan adierazitako neurriak eta jarraibideak behar bezala aplikatzen direla bermatzea, jarduera bateratuak proposatzea, erakundearteko koordinazioa hobetzeko proposamenak egitea, eta jardura-protokoloaren edukiak sor daitezkeen egoera berrietara egokitzeko proposamenak egitea. Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten biktimei laguntza ematen dieten erakundeak hobeto koordinatzea du xede, biktimei babes osoa eman ahal izateko arlo sanitario, polizial, judizial eta sozialean. Horretarako, kasu hauetan profesionalak erabili beharreko jarraibide eta irizpideak ezarri dira, bai profesional bakoitzak bere esparruan egin beharreko lanerako, bai erakundeen arteko harremanetarako. Batzardeko kide dira, Emakundeko Zuzendaritzaz gain, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia, Eusko Jaurlaritzako sail batzuk (Osasuna, Segurtasuna, Lana eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Politika, Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza eta Hezkuntza Saila), EAEko hiru aldundiak, EUDEL, Arartekoa, Legelarien Euskal Kontseilua eta Euskadiko Sendagileen Kontseilua.



Batzordeak etengabeko laguntza-talde teknikoa du, bai eta beste lantalde batzuk ere, aldi baterako direnak, Batzordeak edo Erakundearteko Talde Teknikoak berak hautemandako beharren arabera aztertzen dituztenak. Gaur egun, funtzionamenduan dauden taldeak harrera-baliabideen gaineko taldea eta informazio sistema-taldea dira.

II. Akordioaren Jarraipen Batzordeak bilkura bat egin zuen ekainaren 28an, eta bertan oniritzia eman zion Erakundearteko Talde Teknikoak adostutako dokumentuari, hots, Euskadin genero-indarkeriaren biktime diren seme-alaben giza eskubideak babesteko ikuspegiaren eta jarduketeta-lerroen ingurukoari. Halaber, informazioa eman zen, batetik, 2016an gertatutako eta heriotza-ondorioa izan zuten emakumeen kontrako indarkeria-kasuen kudeaketari eta jarraipenari buruz eta, bestetik, JABETUZ onlineko prestakuntza-programaren aurrerapenei buruz; 2015ean abiarazitako programa horrek prestakuntza ematen die emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta ematen dieten profesionaleri, eta 2017an oinarritzko ikastaroaren bi edizio eta ikastaro aurreratuaren edizio bat izan ditu. Bestalde, 2017an landutako proiektuak aurkeztu ziren, Erakundearteko II. Akordioaren lantalde hauetan.

Erakundearteko Talde Teknikoa

Jarraipen Batzordearen barruan, Erakundearteko Talde Teknikoaren lana bultzatu eta dinamizatu da; talde horrek 4 bilera egin ditu, eta jarraian deskribatzen diren lanak gauzatu ditu.

Emakunderen lan-agendan dagoen gai bat da emakumeen kontrako indarkeria jasaten duten eta aniztasun funtzionala duten emakumeena. Gaur egun oraindik edozein desgaitasun-mota aurkeztea pertsonarentzat handicap handia da gizarte- eta ekonomia-eskubideak erabiltzeko eta baliatzeko. Gizarteak neurri handiagoan zigortzen ditu desgaitasunen bat duten emakumeak. Bereizkeria bikoitza jasaten dute horiek, eta zailagoa egiten zaie baliabideak aukera-berdintasunean eskuratzea, gizartean parte hartzea eta askatasun indibiduala baliatzea.

Gai horretan aurrera egiteko, Emakundek Fekoor federazioaren (Gutxitasun fisikoa edo/eta organikoa duten Bizkaiko pertsonen federazioa) laguntza izan zuen 2015ean abiarazitako lan batean, Erakundearteko Talde Teknikoari EAEn «emakumeen aurkako indarkeriaren biktime diren eta desgaitasun fisikoa duten emakumeek» bizi duten egoerari buruzko azalpena emateko.

2016an, Emakundek indarkeriaren biktime diren eta desgaitasuna duten emakumeekin esku hartzeko eredu integratzaile bat aurkeztu zuen denon artean adostu ahal izateko. Ereduek giza eskubideen, berdintasunaren eta aniztasun funtzionalaren ikuspegiak hartzen zituen barne, eta esparru gisa balio izan zuen eremu horretan egindako hobekuntza-proposamen eta aurrerapen guztietarako.

Lan horrekin jarraituz, 2017an, otsailaren 21eko bileran, lana gainerako desgaitasunetara zabaltzeko asmoz, aniztasun funtzionalari eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko saio monografikoa egin zen. Emakundek aniztasun funtzionala duten eta indarkeriaren biktime diren emakumeen esku-hartzerako gomendioei buruzko dokumentuaren zirriborroa aurkeztu zuen, oraingoan barne hartuta gaixotasun mentala, adimen-desgaitasuna, zentzumen-desgaitasuna eta desgaitasun fisikoa eta organikoa, taldeka lantzeko eta adostutako dokumentua sortzeko, zeinak indarkeriaren biktime diren eta desgaitasuna duten emakume guztien arreta hobetzen lagunduko duen. Horretarako, Emakundek bilerarako gonbita egin zien, batetik, hiru foru-aldundietan arlo horretan lanean ari diren desgaitasunaren alorreko hainbat adituri eta, bestetik, desgaitasun fisiko eta organikoaren, adimen- eta garapen-desgaitasunaren, gaixotasun mentalaren eta zentzumen-desgaitasunaren arloko elkarteei.

Ondoren, 26an egindako bileran, azken dokumentua aurkeztu zen, non aniztasun funtzionala duten eta indarkeriaren biktime diren emakumeekiko esku-hartzerako gomendioei buruzko ekarpenak biltzen diren. Gainera, dokumentu hori indartu eta adoste aldera, Emakundek hainbat aldebiko bilera egin zituen 2017an desgaitasunaren elkarteekin: FEKOOR, ONCE, FEDEAFES, FEVAS eta EUSKAL



GORRAK. Bestetik, bilera horretan baliabide judzialak eta letraduen laguntza ebaluatzeari buruzko azalpena egin zen, eta EAEko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Plana prestatzeko gauzatutako prozesuaren berri eman zen.

Hirugarren bileran, azaroaren 28an, Emakundek Erakundearteko II. Akordioko Erakundearteko Talde Teknikoa eta Harrera Baliabideen Talde Teknikoa gonbidatu zituen, partaidetzako tailer diagnostiko bat egiteko; tailer hori emakumeen kontrako indarkeriaren arloko euskal araudia berritzeko prozesuaren parte da.

Azkenik, laugarren bileran, abenduaren 15ean, Erakundearteko Talde Teknikoak esparru judizialari buruzko jardunaldi monografiko batean parte hartu zuen, eragile judizial nagusiekin batera; jardunaldian honako hauek aurkeztu ziren: Euskadiko lantaldeen balorazioa, «genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako funtsezko zerbitzuen NBEren baterako Programari» buruz; genero-indarkeriaren biktimen arretan sistema judizialak dituen erroka nagusiei buruzko ondorioak, Euskadiko NBEren baterako programako Justizia Taldearen lanetik eratorriak; amaitzeko, «Evaluación de los recursos judiciales y asistencia letrada» ikerketa aurkeztu zen. Ikerketa hori Emakundek egin du, Infopolis2000 eta Marta Dolado Galíndezekin elkarlanean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen (otsailaren 18 4/2005 Legea) 51.2. artikuluan jasota datorren agindua betetze aldera.

Arretarako baliabideen taldea

Azaroaren 28ko bileran, Harrera Baliabideen Talde Teknikoak eta Erakundearteko Talde Teknikoak partaidetzako tailer batean parte hartu zuten; tailer hori emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean erakundeek ematen duten erantzuna indartzera bideratutako euskal legeria berritzeko prozesuaren parte da.

Informazio-sistemen taldea

Informazio-sistemen taldeak lan-saio bat egin zuen 2017ko azaroaren 29an. Bertan, aurreko ekitaldiari dagozkion datuen bilketa homogeneoaren emaitzak jakinarazi ziren. 2017. urtean zehar, bigarren urtez jarraian, Erakundearteko II. Akordioan



Esparru judizialari buruzko jardunaldi monografikoa

parte hartu duten EAEko erakunde guztiek estatistika-datuak irauli dituzte Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak gaitutako aplikazio informatiko batera. II. Akordioaren Jarraipen Batzordean adostutako adierazleez gain, aniztasun funtzionalari eta arretra-zerbitzuetan artatutako emakumeen guztizkoari buruzko datuak biltzen ziren. Datu horiek indarkeriarik gabeko bizitza lortzeko helburuarekin laguntza eske joaten diren emakumeei buruzko informazioa ematen dute, hala, indarkeria jasaten duten Euskadiko emakumeei eskainitako arretaren irismena nolakoa den ezagutzeko. Lan horrek gorputz hartu du txosten honetan: *“EAE indarkeriaren biktima diren emakumeei 2016an eman zaien arretaren irismenari buruzko datuak”*.



Bestalde, horretarako egokitutako aplikazio baten bidez, Emakundek programen eta zerbitzuen ezaugarriak buruzko informazioa bildu du, emakumeei arreta eskaintzeko erabil daitezkeen baliabideen ebaluazio jarraitua egiteko helburuarekin. Datu horiek Emakunderen web-orrian argitaratuta daude, izenburu honekin: Indarkeria pairatzen duten emakumeei arreta ematen dioten zerbitzuen ebaluaketarako datuak EAEn. 2017ko abenduko txostena (2016ko datuak). Horrela, informazio-sistemen taldearen 2015eko erabakia gauzatu da, zerbitzuei buruzko datuak biltzekoa, hain zuzen ere.

Aurreko urteetan bezala, hirugarren txosten baten argitalpenaren berri eman zen; txosten horretan, EAEko estatistikez gain, Estatuko eta Europako inkestak eta ikerketak aipatzen dira. Txosten horren helburua da erkidegoko datuek aurreratzen dizkiguten hipotesiak arakatzea eta horiei eustea, eta emakumeen aurkako indarkeriaren benetako larritasuna ezagutzeko. Txosten horretan, aniztasun funtzionala duten emakumeen kontrako indarkeria eta bikotean eta bikotetik kanpo gertatzen den sexu-indarkeria lantzen dira, bai eta adingabeei eragindako indarkeria ere. Txosten hori Emakunderen webgunean argitaratuta dago, izenburu honekin: EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoak: analisia eta interpretazioa. Datu estatistikoak: 2016 eta 2017ko lehen seihilekoa.

Emakumeen kontrako indarkeriarekin lotutako erakundearteko beste lankidetzaren prozesu batzuk

Emakumeen kontrako indarkeria arloan jarduteko tokiko protokoloak.-

Emakunde buruzagitzaren eta koordinazio-lanetan aritu da emakumeen aurkako indarkeriaren arloan jardutako protokoloak homogeneizatzeko. Hala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 62. artikulua bultzatu du, hortxe ezartzen baita protokolo horiek garatu beharra. Zentzu horretan, Erakundeak protokoloen berri ematen du toki-administrazioek hala eskatzen badute, hala, horiek sustatzen dituzten administrazioek erreferentziazko eta segurtasuneko esparru komun bat izan dezaten. Urte honetan ez da jaso idatzizko txostenaren

eskaerarik; alabaina, protokoloak egiteko eta onartzeko jasotako galderak erantzun dira. Hala, aholku eman da Durangaldean «Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean jarduteko eta koordinatzeko II. Protokoloa» egiteko, eta Emakundeko zuzendaria protokolo hori sinatzeko ekitaldian egon zen Durangon, 2017ko azaroaren 24an.

Emakumeen Genitalen Mutilazioa (EGM).-

2013an hasi den eta harrezkeroztik lantzen jarraitu den beste lan-prozesu bat emakumeen genitalen mutilazioa (EGM) orokorrean aztertu eta lantzeari buruzkoa izan da, erazketa hori emakumeen aurkako indarkeria-mota bat den aldetik.

2014. urtean EAEn egindako Emakumeen Genitalen Mutilazioari buruzko diagnostikoaren ostean, 2015ean etorkinekin lan egiten duten gobernuz kanpoko erakundeetako eta Euskal Administrazio Publikoko langileei bideratutako prestakuntza abiarazi zen. Horretarako, 2 lantalde jarri ziren martxan, EGMri aurrea hartzeko osasun eta hezkuntza arloko gomendioak prestatu ahal izateko. Talde horietan aldi berean lan egin dute Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saileko eta Osakidetzako profesionalak osatutako osasun-taldeak eta hezkuntza-taldeak, alde batetik, eta Berritzagune Nagusiko zein Hezkuntzako Ikuskatzaitzako profesionalak osatutakoak bestetik. Emakundek koordinatzen ditu bi taldeok.

2016an, eta osasun eta hezkuntza arloko taldeek egindako lanaren emaitza gisa, profesionalak bideratutako hiru dokumentu editatu eta argitaratu ziren: «Emakumeen Genitalen Mutilazioa. Euskadiko osasun-sisteman gomendatutako jardueren gida», «Euskal hezkuntza-sisteman emakumeen genitalen mutilazioa prebenitzeari buruzko eskuorria» eta «Emakumeen genitalen mutilazioa. Jarduketa profesionalaren oinarriko printzipioak». Horiek Emakunderen webgunearan bitartez eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Hezkuntza Sailaren webgunearan bitartez eskura daitezke.

Dokumentu horiek publikoki argitaratu ziren Emakundek antolatutako Emakumeen Genitalen Mutilazioaren Zero Tolerantziaren Nazioarteko Egunaren (otsailaren





Emakumeen eta Neskatoen salerosketari buruzko mahai osoaren bilkura

prestakuntza-jardunaldietan zehar. Jardunaldi horien helburua Euskadiko profesionalak beharrezko prestakuntza eta sentsibilizazioa beregana dezatela lortzea izan zen, Emakumeen Genitalen Mutilazioari aurrea hartzeko eta hura jasan duten emakumeei arreta egokia eskaintzeko.

2016ko otsailaren 17an Bilbon ospatutako jardunaldia osasun eta hezkuntza arloetako profesionaleri bideratuta egon zen. Bestalde, 2016ko otsailaren 18an Donostian egindako jardunaldia gizarte esparruko profesionaleri bideratuta egon zen, Gizarte Laneko eta Gizarte Hezkuntzako langileei eta Berdintasun, Gizarteratze, Immigrazio, Kulturarteko Bitartekaritza eta antzeko arloetako langileei bereziki.

2017an, Emakundek Osakidetzarekin eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Hezkuntza Sailekin Emakumeen Genitalen Mutilazioari buruz duten lankidetzaren esparruan hartutako konpromisoen jarraipena egin da. Gainera, urtero bezala, NBEk Emakumeen Genitalen Mutilazioaren aurkako informazio- eta sentikortze-ekintzak areagotzeko eskaera egin du, horren Nazioarteko Eguna dela eta. Eta Emakundek eskaera horren alde egin zuen, hirugarren urtez jarraian.

Sexu-esplotaziorako emakumeen eta nesken salerosketa.- Gizakien salerosketari dagokionez, Askabide erakundearentzako diru-laguntza izapidetu eta kudeatu da, ostatu duina eta segurua emateko, bai eta sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktima diren emakumeentzako arreta osoa kudeatzeko ere. Gainera, Congregación Oblatas erakundearentzako diru-laguntza izapidetu eta kudeatu da, «Ireki Leihoak» proiektua garatzeko; proiektu horren helburua da prostituzioaren errealitateari sistematikoki behatzea, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktima izan daitezkeen emakumeak detektatzeko, identifikatzeko eta artatzeko.

Gainera, abenduaren 11n, Emakumeen eta Neskatoen salerosketari buruzko mahai osoaren bilkura egin zen; mahai horretan parte hartzen dute, Emakundez gain, Segurtasun Sailak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzaren Lana eta Justizia Saileko Justizia Zuzendaritzak, hiru foru-aldundietako Adingabeen zerbitzuak, eta Espainiako Gobernuak Euskadin duen Ordezkaritzako, Segurtasun Indar eta Kidegoetako eta hamaika GKEtako ordezkariak.

Salerosketen mahaiaren ekintza-planaren barruan, Emakundek Erregelamendu Proposamena egin du Gizakien Salerosketaren biktima diren emakumeen eta neskatoen arreta hobetzeko koordinazio-mahai instituzionalaren barne-funtzionamendurako, eta 2018ko Jarduketa Planaren proposamena aurkeztu du, Erkidegoko, Estatuko eta nazioarteko araudian jasota dauden eta EAERI dagozkion lehentasunekin, helburuekin eta neurriekin bat etorritz.



Intimitate eta anonimotasunerako eskubidearen azterlana.- 2016an areagotu egin zen, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeekin kontrastatu ostean, «Genero Indarkeriarekin lotutako Delituen biktimen Intimitaterako Eskubidea. Biktimen anonimotasunerako eskubidea» azterlana. Hura Izaskun Porres García eta Miren Odriozola Gurruchaga ikertzaileek egin zuten aurreko urtean. Horrela, hau da, Euskadin sortu diren genero-indarkeriaren biktimen elkarteetako kide diren emakumeei ahotsa emanez, oso informazio kualitatibo interesgarria jaso zen biktimek komunikabideetan egiten den erakusketaren inguruan duten pertzepzioari eta iritziei dagokienez. 2017an, ikerketa osoaren eta horren laburpenaren argitalpena editatu eta gauzatu da.

Emakunderen Aholku Batzordea - Emakume-elkarteen partaidetza-organoa

Emakumeek beraiek politika publikoen diseinuan parte hartzea orokorrean aintzat hartuta dagoen beharrezkoa da. Horregatik, Emakunderen lehentasunezko jarduera-ardatzetako bat emakumeen elkarteetan sarea sustatzea eta sendotzea da. Horretarako, haiek esku-hartze publikoko esparru guztietan berdintasun-politiken diseinuan eta erabaki-hartzean parte hartzea sustatzen du. Lan horren ondorioz, elkarteekin harremana izateko eta trukerako mekanismoak sortuz joan dira, eta elkarte horien arteko trukea eta lan koordinatua ere sustatu eta babestu da. Horren guztiaren emaitza da Emakunderen Aholku Batzordea; hari esker, gainera, gero eta handiagoa da berdintasun handiagoa lortzeko sentsibilizazioaren eta gizarteko aldaketen arloan elkarteek egiten duten ekarpena.

2017an, Aholku Batzordeak jarraipena eman die solasaldi- eta komunikazio-organoaren ohiko zereginiei Euskadiko elkarteetan mugimendurekin, eta sendotu egin da, aurreko urtean bezala, prestakuntza-saio eta lurraldeko kontsultarako azpibatzerdeen esparruan solasaldi soziopolitikorako laguntza-saioen bidez. Emakunderen, bestalde, Aholku Batzordeak EAEko administrazio publikoaren maila guztietan sortutako sektoreko partaidetzarako organoetan ordezkaritza



Emakunderen Aholku Batzordea

izatea sustatzen jarraitu du. Horrez gain, udalerrietan, eskualdeetan eta lurralde historikoetan elkarte guztiekin bilerak egitea bultzatu du.

Emakunderen emakumeen parte-hartze soziopolitikorako dinamika eta estrategia berriak bilatu, taxutu eta sendotzeko lan egiten du. Dinamika horietako batzuk lankidetzan egin dira Jaurlaritzako beste sail batzuekin. Esparru horretan elkarteekin lan egiten dugu lurralde-eremuko bileren bitartez. Bilera horien helburuak sareak sendotzea, modu egonkorrean koordinatzea eta denon intereseko ekimen eta proiektuak adostea dira.



Emakunderen Aholku Batzordeko elkarte-ordezkariek lurralde historiko bakoitzean parte har dezaten bultzatu da, elkarrekin lan egitearen kultura sortzeko. Horri esker, ekintza zehatzak martxan jarri dira, eta etorkizunerako konpromisoak zehaztu dira, emakumeek parte-hartze aktiboa izateko elkarte-sarearen bidez. 2017an, hogeita hamar bilera baino gehiago egin dira hiru lurraldeetan, Aholku Batzordearen solasaldi soziopolitikoak indartzeko.

Begira / Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordea

Begira 1998an sortu zen Emakunderen barruan, publizitatearen arloan emakumeen eta gizonen berdintasun benetako eta eraginkorra lortzeko helburuz. Komunikabideek errealitatearen pertzepzioan eta balioen eraikuntzan duten eraginaren garrantzia aintzat hartuta, eta

4/2005 Legeak ezarritakoa betetze aldera, Emakundek beharrezkotzat jo zuen batzorde horren lana indartzea, komunikabideak ere barne hartuz. Ekainaren 11ko 360/2013 Dekretuaren bidez Batzorde berria arautu zen.

Batzordearen helburuak hauek dira, batik bat: komunikabideetan pertsonen –sexu batekoak edo bestekoak izateagatik– giza duintasun txikiagoa edo handiagoa dutela eta objektu sexual soilak direla adierazi ez dadin bermatzea, eta emakumeenganako indarkeria justifikatu, hutsaldu edo horretara bultzatzen duen edukirik egon ez dadin bermatzea. Bestalde, irudi berdinzalea, orekatua, plurala eta edertasun-kanon eta sexu-estereotiporik gabea sustatu behar dute, eta emakumeek bizitzaren eremuetan betetzen dituzten funtzioetan duten partaidetza aktiboa berma dezatela, bereziki kontuan hartuta haur eta gazteentzako programazioaren edukiak.

Begirak herritarrek edota erakundeek egindako keak jasoko ditu eta prozedura zuzentzaileak proposatuko ditu edo, behar izanez gero, dagokien organoetara bideratu, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005eko Legeak jasotzen duenaren arabera zehapen-prozedurak erabakitzeko.



Begira / Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordea

Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako Batzorde honetako kideak hauek izango dira: Emakunde bera, Idazkari Nagusia buru dela, Eusko Jaurlaritzako Publizitate Instituzionalari buruzko Sailarteko Batzordeko, Lehendakaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura, eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarteko, EITBko, Euskal Herriko Unibertsitateko, Emakunderen Aholku Batzordeko eta EKA kontsumitzaileen elkarteko ordezkariak. Horiekin batera publizitatean eta komunikazioan adituak diren pertsonen osatzen dute batzordea.

2017an, Begira batzordeak aurreikusitako bi ohiko bilerak egin zituen. Horietan, Ekintza Planean jasotako jarduketak proposatu, egiaztatu eta onartu ziren.



- Zehazki, lehen ohiko bilera ekainaren 7an izan zen eta, bertan, izapidetzen ari ziren kexen espedienteak egiaztatzeaz gainera, Euskadin publizitate eta komunikazio ez-sexistarako Kode Deontologikoari eta Autoerregulazio Kodeari buruzko publizitate- eta komunikabide-agentzien monitorizazioaren gaineko informazioa eman eta hainbat proposamen jaso ziren. Era berean, honi guztiari buruz informatu zen: kodea ezartzeko sarea, publizitatean eta komunikazioan erabilera sexistak detektatu eta bidaltzeko app-aren berritzea eta agentzia zein komunikabideetako profesionalentzako prestakuntza-eskaintza.

Halaber, Begiraren urteko memoriari ekarpenak egin zitzaizkion.

- Bestalde, bigarren ohiko bilera azaroaren 28an izan zen eta, bertan, uneko kexen espedienteak egiaztatzeaz gainera, kode deontologikoa ezartzeko sarearen lan-prozesua eta dinamizazioa landu ziren. Era berean, 2018rako aurreikusitako ekintza-planaren berri eman zen.

Lan-bilerez gainera, batzordeko kideen arteko lankidetzaren etengabea izan da online plataforma bati eta lantalde espezifikoari esker, jarduketaren zehatz batzuk egiaztatzea xede izan dutenak.

Ilido horretan, hona hemen aztergai dugun urtean aurrera eramandako jarduketaren garrantzitsuenak:

- Herritarren 93 kexa jaso eta izapidetu dira, publizitate eta komunikazio sexistari buruz (horrek esan nahi du % 75 baino gehiago ugaritu direla, aurreko urtearen aldean).
- Aholkularitza-lanarekin eta txosten eta gomendioak egiten jarraitu da, genero-ikuspegitik, publizitate- eta informazio-erakunde bidez.

- Batzordea osatzen duten pertsonen lankidetzarako online plataforma administratzen eta dinamizatzen jarraitu da, Begira espazioarekin Emakunderen webaren esparruan, bai eta gizarte-sareetan ere.

- EAEko publizitate eta komunikazio sexistari eta BEGIRAREN jarduerari buruzko 2016ko urteko memoria prestatu, editatu, onartu eta zabaldu da.

- «2015-2016an emakumeek euskal hedabideetan izan duten presentziari buruzko azterketa» txostenaren bertsio digitala editatu eta zabaldu da.

- «Euskal autonomia erkidegoko publizitate-agentziak genero-ikuspegitik monitorizatzea. 2016» txostenaren bertsio digitala editatu eta zabaldu da.

- Begira Batzordea sortu zenetik, bere proiekturik nabarmenena izan da espazio partekatuta bat sortzea komunikabideekin eta publizitate-agentziekin, kode deontologikoa eta autoerregulazio-kodea egiteko lankidetzaren prozesu batean. Prozesu hori 2014an hasi eta 2015ean amaitu zen. Kode deontologikoa bat eta bi dekalogo egin ziren, hainbat parte-hartzaileekin: bat, komunikazioaren arlorako eta, bestea, publizitateko. Aurkezpen eta atxikimenduen ondoren, 2016an kodea ezartzea sustatu zen sare bat sortu, kudeatu eta dinamizatuta, aipatutako sarea ezagutza partekatze gunea izateko.

2017an zehar, prozesua ebaluatu eta sarearen idazkaritza teknikorako urte anitzeko lehiaketa publikoa deitu eta adjudikatu zen. Halaber, aipatutako sarearen IV. topaketa antolatu eta egin zen Euskadin publizitate eta komunikazio ez-sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziorako ezartzeko. Jardunaldia 2017ko abenduaren 1ean izan zen Euskadiko Artxibo Historikoan; atxikitako agentziak eta komunikabideak bertaratu ziren eta helburu hauek izan zituen: sareak hurrengo urteetan izango zuen norabidea azaltzea, egindako monitorizazioak komunikabideei eta agentziei aurkeztea eta gauzatutako prestakuntza-prozesuaren balorazioa egitea.



- Hedabideek eta publizitate-agentziek Kode Deontologikoa ezar dezatela bultzatzeko beste estrategia bat prestakuntza-programa bat garatzea izan da. Zuzendariei eta teknikariei bideratutako aurrez aurreko prestakuntza-proposamen bat diseinatu zen beren jarduera Euskadin gauzatzen duten eta Kode Deontologikora atxiki diren agentzien eta komunikabideen egoitzetan. Prozesu honekin jarraitu da 2017an. Aipatutako jarduerak hauek izan dira:

- Gune birtuala kudeatzea informazioa, dokumentazioa eta baliabideak eskaintzeko helburuarekin, komunikazioa eta publizitatea ez-sexista izan dadin eta genero-ikuspegia kontuan har dadin. Gune hori bertan parte hartzen duten pertsonen eta eragileen trukerako gune bat izango litzateke.
 - Prestakuntza areagotzeko material zehatzak era digitalean editatzea eta hedatzea, kontzeptuak, adibideak eta tresnak sakontzeko eta osatzeko. Horiek 6 modulu dituzte: Modulu-esparru 1, 3 modulu komun (bi eremuetako profesionalentzat), publizitatearentzako modulu espezifikoko 1 eta komunikaziorako modulu espezifikoko 1.
 - Egoitzako nahiz «nahierako» prestakuntzarako bigarren deialdia egin da komunikabide eta agentzia bakoitzarentzat.
 - Prestakuntza-ekimenaren gogobetetze-mailaren eta erabilgarritasunaren ebaluazioa gauzatu da.
 - Sarearen IV. Topaketarekin bat etorri. Prestakuntza-prozesuaren osoko bilkura egin da esperientzia partekatze eta ondorioak zein proposamenak ateratzeko.
- Publizitate eta komunikazio sexisten balizko erabilerak detektatu eta horiei buruzko kexak bidaltzeko gailu mugikorretarako aplikazioa eguneratu da, errazagoa izateko eta kodeko dekalogo berrietara egokitzeko.

- Publizitatean eta komunikazioan sexismoari buruzko gomendioak jakinarazi, aholkatu eta egin dira.

- Bost bideo egin dira kodea, dekalogoak eta orain arte prestatutako gomendioak zabaltzeko.

Beste lankidetzak batzuk: unibertsitateak, berdintasun-erakundeak, nazioarteko instituzioak

Unibertsitateak: Aurreko urteetan bezala, Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterrean» laguntzen jarraitu du Emakundek. Master horren helburua da profesionalak gaitzea, berdintasun-eragile gisa lan egin dezaten, bai administrazioan bertan, bai erakunde eta entitate pribatuetan. Lankidetzak diru-laguntza izendunaren eta irakaskuntzaren parte-hartzearen bidez eta Emakunden praktikak egiteko erraztasuna emanez zehaztu da.

Era berean, EHUren Berdintasunerako Zuzendaritzarekin elkarlanean, bi online ikastarorako materialak prestatu dira: bata emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa, eta bestea gizonei, berdintasunari eta maskulinitasunei buruzkoa.

Halaber, Deustuko Unibertsitateko «Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko Masterra»ren garapenean ere jardun dugu lankidetzan, ikasleentzako 15 bekaren bidez.

Unibertsitate horrekin beste modu batean ere lankidetzan aritu da Emakunde: 2017. urterako Emakume Teknologoaren Ada Byron Sariaren deialdia eta beste jarduera osagarri batzuk babestu ditu. Ekimen horren helburuak hauek dira: eknologiaren arloko emakume profesionalen lana jendaurrean aitortzea eta erakustea. Izan ere, lan hori ez du behar adina ezagutzen gizarteak, oro har, nahiz eta ekarpen handiak egin emakumeak hainbat esparrutan. Helburua da saria jasotzen duten emakumeak gaur egungo neska gazteentzat eredu eta pizgarria izan daitezela eta bokazio teknologikoak areagotu daitezela.



EHUko Zuzenbide Fakultateko gizarte-justiziaren aldeko Klinika Juridikoarekin lankidetzan jarraitzen da eta hiru hitzalditan parte hartu da. Klinika hori unibertsitate arloan diskriminazioaren kontrako estrategiak diseinatzeko eta giza eskubideak defendatzeko laborategi bat da, eta Zuzenbidearen ikaskuntza eta eraldaketa pedagogikorako esparru bat da aldi berean.

Estatuko berdintasun-erakundeak: Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak abenduaren 27an antolatutako Biltzar Sektorialean parte hartu dugu; Estatuko Administrazio Orokorra eta autonomia-erkidegoak emakume eta gizonen berdintasun-politikaren inguruan elkartzeko, eztabaidatzeko eta lankidetzan jarduteko organoa da.

Emakundek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politiken sarearen 13. eta 14. osoko bilkuran parte hartu du; bilkura hori eztabaidarako eta azterketarako foroa da, Europako Egitura eta Inbertsio Funtsek (EGIF, EGEF, FEMP eta LGNEF) batera finantzatutako esku-hartzeetan genero-ikuspegia hobeto txertatzeko.

Era berean, martxoaren 30ean egindako Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko Estatuko Behatokiaren osoko bilkuran parte hartu da eta bilkura horretan, besteak beste, gai hauek landu dira:

- Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunari buruzko hausnarketak
- Lantaldeak osatzeari buruzko proposamena
- Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko Estatuko Behatokiaren IX. Urteko Txostenaren zirriborroaren inguruko ekarpenak; aipatutako txostena 2015ari dagokio, eta 2017ko martxoaren 8an igorri zen.



Berdintasunerako Biltzar Sektoriala

Bestalde, irailaren 20an, Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzak deitutako sexu-esplotaziorako salerosketaren aurkako Foro Sozialera bertaratu zen.

Hezkuntzaren eremuan, Emakundek TRUKATU Sarean parte hartzen jarraitu du. Sare hori Emakumearen Institutuak eta Hezkuntza Ministerioak bultzatu dute, eta berdintasun-arloko politikak sustatzen dituzten erakundeetako pertsonak eta, orobat, autonomia-erkidego guztietako hezkuntza-sailekoek eratzten dute.



Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren arduradun politikoei eta profesionalei aholkularitza eman zaie Emakunderen lanaren eta Eusko Jaurlaritzak berdintasun-politiken arloan izandako esperientziaren inguruan.

Halaber, aholkularitza eta prestakuntza-ekintza eman zaie Valentziako Generalitateko arduradun politikoei eta teknikariei, eta ezagutzera eman da Emakundek eta Eusko Jaurlaritzak generoaren araberako inpaktuaren alde aurreko ebaluazioari dagokionez egindako lana.

EBko erakundeak eta programak: harremanetan egon gara Genero Berdintasunaren Europako Erakundearekin (EIGE), elkarrekiko lankidetzan sakontzeko, zehazki, EAEn Berdintasuneko Europako Indizea ezartzeko. Era berean, onlineko Eurogender lankidetzeta-plataformarako harpidetzarekin jarraitu eta Europar Batasunaren egitura- eta inbertsio-funtsetako aurrekontuetan genero-ikuspegia barne hartzeari buruzko konferentzia batean parte hartu da, Bonn-en (Alemania). Genero Berdintasunerako Europako Institutuak antolatu du (EIGE).

Hain zuzen ere, EGEF eta EGF egiturazko funtsei dagokienez, Emakundek funts bien Jarraipen Batzordean parte hartzen jarraitu du, urteko txostenean ekarpenak egin ditu eta Batzordeen urteko bileretan egon da: 2014-2020 aldiko Europako Gizarte Funtzaren (EGIF) Programa Eragilearen Jarraipen Batzordean eta 2014-2020rako Eskualdeen Garapenerako Europako Funtzaren (EGEF) Programa Eragilearen Jarraipen Batzordean. Era berean, hiru lan-bilera egin dira funtsetako berdintasunerako talde tekniko berriarekin, parte hartzen duten programazio-aldi honetarako, eta EGEF eta EGF funtsek, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzak (LGENF) eta Itsas eta Arrantzaren Europako Funtzak (FEMP) ere parte hartu dute.

Gainera, zera nabarmendu behar da: Emakundek, 2014-2020 aldiko egitura-funtsetako Berdintasun Politiken Sareko kide den aldetik, Sarearen Osoko

Bilkurak egindako 13. eta 14. bileretan parte hartu zuen, baita Sarearen barruan sortutako lantaldeetan ere. Sare hori Emakumearen Institutuak eta funtsen agintari kudeatzaileek sustatzen dute.

Babes instituzionala eman zaie Europako hiru proiekturi: «*Artea eta aktibismo digitala, indarkeria matxisten oinarriak ezartzen dituzten imajinarioa, gizarte-arauak eta genero-estereotipoak hausteko*», Oxfam Intermón-ek zuzendua; «*Support to the Inter-agency Gender Equality Commission. Georgia*» EVOLUXER SLk zuzendua; eta «*Public Spaces: Culture and Integration in Europe*», Pompeu Fabra Unibertsitateko Sonia Arribas-ek zuzendua.

Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzarekin elkarlanean, harremanetan egon gara Nordic Equality-ko ordezkariekin..

NBEko eta nazioarteko erakundeak: nazioarteko lankidetzari dagokionez, berriz, honako jarduera hauek egin dira:

Lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu dugu Mexikoko gobernuarekin, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruko esperientziak eta ezagutzak trukatzeko.

Munduko Landagunearekin lankidetzan jarraitu eta babesa eman diegu, familia-nekazaritzaren eta landa-ingurunearen aldeko ekimenak, ekintzak eta proiektuak sustatzeko sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren baitan.

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzarekin elkarlanean, Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordearen 61. bilkuran parte hartu dugu. Nazio Batuak urtero antolatzen du New Yorkeko egoitzan, emakumezkoek munduan duten egoerari buruzko jarraipena egiteko.

Garapenerako Banku Inter Amerikarrak Washingtonen antolatutako lan-jardunaldi batean parte hartu dugu, EAEko kontratazio publikoan berdintasun-klausulak





GJHen ezarpena eta berdintasunari buruzko jardunaldia, NBE Emakumeak

ezartzen izandako esperientzia ezagutzera eman eta Amerikar kontinenteko beste herrialde batzuetan ere jardunbide egoki hori ezarri ahal izan dezaten.

Washingtonera egindako bisitaldia dela-eta, Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzarekin elkarlanean lan-bilerak egin dira Ameriketako Estatuaren Erakundearen ordezkariekin, erakunde horretako Emakumezkoen Batzorde Inter Amerikarrarekin, New Jerseyko Seton Hall Unibertsitateko Euskal Ikasketen taldearekin eta Wilson Center gizarte-ikeruntzako zentroarekin.

Latinoamerikako Idazkaritza Nagusiarekin (SEGIB) elkarlanean aritu gara martxoaren 8ko kanpainan, Eusko Jaurlaritzaren eta erakunde horren artean sinatutako esparru-akordioaren barruan.

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarekin batera, «Emakumeen eta gizonen berdintasuna: funtsezko auzia Garapen Jasangarriko Helburuen ezarpenean» jardunaldia antolatu dugu, NBE Emakumeak erakundeko ordezkarien parte-hartzearekin.

Jardunaldi birtuala antolatu dugu NBE Emakumeak erakundean Europako eta Erdialdeko Asiako eskualde-bulegoarekin esperientziak trukatzeko.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatutako ELGEren «EBko herrialdeetako lankidetzaren deszentralizatuaren joera berriei buruzko azterlana» ikerketan parte hartu dugu; bereziki, EAEn garapenerako lankidetzaren sektorean genero-ikuspegia txertatzeari begira izandako bilakaerari dagokionez.

Saharar herriari laguntza emateko euskal sarean parte hartzen jarraitu dugu.

Emakundek 2016an Ekonomia eta Gizarte Garapenerako Turingo III. Foroan parte hartu zuenetik, lankidetzan ari da DELGEN ekimenarekin; ekimen hori Nazio Batuen Garapenerako Funtzaren Latinoamerikako generoaren arloak sustatzen du (PNUD-Panama). Lankidetzaren esparruan baterako hainbat jarduerak egin dira: tokiko garapeneraren eta genero-garapeneraren inguruko kontzeptuzko esparru bat argitaratzea, arlo horretan jardunbide egokiak deitzeko proposamen bat prestatzea eta hainbat webinar edo online jardunaldi/konferentzia gauzatzea.

Indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako eta neskeentzako oinarriko zerbitzuei buruzko Nazio Batuen Programa Bateratuan parte hartzen jarraitu dugu. Programaren helburu nagusia nazioarteko adostasuna lortzea da emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta horri erantzuteko funtsezko elementu eta zerbitzuei dagokienez. Nazioarteko programan



beharrezko gutxieneko estandarrak erabakitzen dira indarkeria hori pairatzen duten emakumeen eta neskatoen beharrei kalitatezko erantzun koordinatua emateko. Programan, erantzun instituzionalaren zenbait arlo lantzen dira, hala nola poliziala, judiziala, osasuneko, gizarte-zerbitzuena, bai eta koordinazioko eta gobernantzako sistemak eta mekanismoak ere.

Indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako oinarriko zerbitzuak finkatu ostean, mundu mailako estandarrak aztertzeke fasea abiarazi zen, eta hiru urteko epea finkatu zen (2016-2018). Gero, estandar horiek aurkeztu eta NBERen Batzar Nagusiak onestea da helburua. Maila goreneko nazioarteko akordio bat da eta, haren bidez, estandar horiek ezartzera eta indarkeriaren biktima diren emakumei eta neskei arreta koordinatua eta kalitatezkoa bermatzera behartzen ditu estatuak.

Emakunde material horiekin proba egiteko prozesuaren buru izan da EAEn. Horretarako, hausnartzeko eta ikasteko prozesu kolektiboa abiarazi du, sistema etengabe aldatzeko eta hobetzeko, indarkeria jasaten duten emakumeekiko eta neskatoekiko esku-hartzean nahasitako EAEko eragileen artean. Prozesu horrek hobekuntza-puntuak hautematea eta izaera aplikatuko planak ezartzea zuen helburu, emakume horiei arreta modu koordinatuan eskaintzeko urrats gehiago eman daitezen, betiere Indarkeria jasaten duten Emakumeentzako eta Neskentzako Funtsezko Zerbitzuei buruzko Nazio Batuen Munduko Programak barne hartzen dituen gutxieneko arreta-estandarrak kontuan hartuta.

Era berean, ariketa horrek aukera emango du ideia zehatzak identifikatzeko, zeinak indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko Erakundearteko III. Akordioa egiteko oinarriak susta ditzaketen.

Horretarako, lantaldeak egin dira esku-hartzeko hainbat esparrutan (osasuna, polizia, justizia, gizarte-zerbitzuak eta koordinazioa eta gobernantza) *Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumei harrera hobea egiteko*

Erakundeen arteko II. Akordioko erakundeekin. Prozesuak bere baitan txertatu nahi ditu erakunde bakoitzeko ordezkari bat eta, horrez gain, arreta-sistemako postuetan zuzenean inplikaturako langileak; halaber, administrazioak zerbitzuak emateko kontratatutako enpresetako langileak txertatzea eskatzen zen.

Hala, 2017ko lehenengo eztabaida-saioetan (martxoa-apirila), EAEko arreta-sistemen korapiloak hautematen lan egin zen (erreferentziatzen hartuta aipatu ditugun Nazio Batuen proposamenak) eta honako hauek parte hartu zuten: osasun-taldeko 14 kide, gizarte-zerbitzuetako taldeko 36 kide, polizia-taldeko 7 kide, justizia-taldeko 9 kide eta koordinazioko eta gobernantzako taldeko 16 kide. Bilerak egun hauetan egin ziren hurrenez hurren: martxoaren 27an (Bilbo, La Bolsa Zentro Zibikoa), martxoaren 28an (Gasteiz, Eusko Jaurlaritza), martxoaren 29an (Erandio, Ertzaintzaren polizia-etxea), martxoaren 31n (Donostia, Eusko Jaurlaritza), apirilaren 4an (Gasteiz, Emakunderen egoitza). Lan-bilera horien ondoriozko dokumentazio guztia bildu eta antolatu da, gero lan-prozesuan parte hartu duten guztien zerbitzura jartzeko. Informazio hori eskuragarri dago hobekuntza-programa kudeatzeko sortutako webgunean: www.emakundeonu.eus

Bigarren lan-saioetan aurreko bilkuran hautemandako korapiloak askatzeko irtenbideak eta ekintzak bilatzean jarri zen arreta eta honako hauek parte hartu zuten: osasun-taldeko 9 kide, gizarte-zerbitzuetako taldeko 24 kide, polizia- eta justizia-taldeko 20 kide eta koordinazioko eta gobernantzako taldeko 14 kide. Bilerak egun hauetan egin ziren hurrenez hurren: ekainaren 13an (Bilbo, La Bolsa Zentro Zibikoa), ekainaren 15ean (Gasteiz, Eusko Jaurlaritza), ekainaren 19an (Donostia, Eusko Jaurlaritza) eta ekainaren 22an (Gasteiz, Emakunderen egoitza). Aurreko bilkuran bezala, aktak antolatu eta eztabaidatu ondoren, hobekuntza-programa honen garapenerako sortutako webgunean jarri dira eskuragarri.

Gainera, irailaren 19an, gizarte-zibileko eta indarkeriatik bizirik irten diren emakumeen elkarte-mugimenduko 18 pertsona bildu ziren Bilbon (Eusko Jaurlaritza). Lan-bilera horren helburua, batetik, interes-taldeari egindako lanaren berri



Hirugarren sektoreko erakundeak: Emakunde hirugarren sektoreko erakundeekin lankidetzan aritu da jarduketa batzuetan, adibidez:

- Zinema Ikusezineko Jaialdiaren seigarren edizioarekiko (2017) lankidetzan, emakume errealizadore onenaren sariari babesa emanez;
- Bertsozale Elkartearikiko lankidetzan, bertsoaritzan genero-ikuspegia txertatzeko eta prestakuntza-jardueren bitartez emakume bertsolarien ahalduntzea babesteko;
- Argiri Emakume Elkartearikiko lankidetzan, Irungo Alarde Mistoaren elkarteari babesa emateko;
- Aisialdiko eta Kulturako Azkuna Zentroarekiko lankidetzan, arteko eta kulturako hainbat proiektu ikuspegi feministatik gauzatzeko.



Nazio Batuen Programa Luis Mora UNFPako zuzendariaren parte hartzearekin



2.2. Politika publikoen ebaluazioa

Berdintasun- eta genero-politiken ebaluazioa, indarreko legediak berdintasunaren arloan ezartzen duen eta nahitaez bete behar den agindua izateaz gain, kontu ematea xede duen jarraipen-mekanismoa da. Aldi berean, ikasteko eta hobetzeko tresna da. Horri esker, inplementatutako politikek norainoko arrakasta duten jakin ahal da, eta etorkizunean erabakiak hobeto hartu ahal dira.

Emakundek 1991n ekin zion ibilbideari, eta ezaguna eta aitortua da politika publikoen ebaluazioaren alorrean egin duen lana, bai aldizkakotasunari eta sistematizazioari dagokionez, bai bere deszentralizazio-mailari dagokionez.

EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA EBALUATZEA

Botere publikoen jardueraren inguruan egiten den urteko jarraipenaren bidez, EAE-ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaren garapen-maila ezagut dezakegu, gauzatzearen ikuspegitik. Ikuspegi horren mugak gorabehera, intereseko panoramika bat eskaini dezake, oinarritzko kontu batzuen inguruan, besteak beste, aurrerapena berdintasun-politiken plangintzan, berdintasun-politikek beren erakundeetan sustatzen dituzten berdintasun-unitateen garapena edo administrazio publikoek besteak beste berdintasuna sustatzeko bideratutako aurrekontuak.

Segimendu hori EAEko instituzioek aplikazio informatiko baten bidez betetako galdetegi esker lortutako informazioan oinarritzen da. 2017an, 2016an egindako jardueri buruzko informazioa batu da. Guztira, 110 erakundek edo instituziok parte hartu dute.

Emandako informazioa oinarri hartuta, txosten hauek egin dira:

- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren (2016) ebaluazioa, EAEko botere publikoek egindako berdintasun-planaren garapen eta ezarpenaren jarraipena barne hartzen duena.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruarekin zerikusia duten Eusko Jaurlaritzako sailen eta sail horietako organismo autonomo eta erakunde publikoen jardueraren jarraipena, 2016. urteari buruz.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO EUSKAL LEGEAREN EBALUAZIOA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen lehenengo xedapen gehigarriak ezartzen du Legea bost urtez behin ebaluatu behar dela. Xede horrekin, 2015ean ebaluazio-prozesu bat abiarazi zen eta horren emaitzak 2016an ezagutu ziren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordeak uztailaren 21ean onartu ostean.

Ebaluazio-prozesua lau ebaluazio-proiektuk osatzen dute guztira:

- Alde batetik, Berdintasunerako Legearen betearazpenaren, garapenaren eta aplikazioaren segimendu kuantitatiboa egin da.
- Beste alde batetik, eta ebaluazio kuantitatiboaren osagarri gisa, ebaluazio kualitatiboagoa egin da, Legean aurreikusitako berdintasun-neurrien ezagutza-, kontzientziazio- eta babes-maila ebaluatu ahal izateko.
- Azkenik, bi ebaluazio-prozesuak bi jarraipen-prozesu zehatzekin osatzen dira; horiek berdintasun-baldintzen aplikazioari buruzkoak dira, kontratuetan eta diru-laguntza publikoetan, baita araudia prestatzeko orduan kontuan izan beharreko genero-inpaktuaren alde aurretiko ebaluazioei buruzkoak ere.



Legearen ebaluazioak osatzen dituzten 4 txostenak 2017an argitaratu dira.

Halaber, ebaluazio horien emaitzak ezagutzera emateko, politikariei, teknikariei eta gizarte-eragileei zuzendutako jardunaldia egin zen. «Berdintasunerako legearen ebaluaketaren emaitzak» jardunaldia uztailaren 5ean egin zen Eusko Jaurlaritzaren Gasteizko egoitzan, eta bertan egon ziren Eusko Jaurlaritzako lehendakaria eta Emakundeko zuzendaria, bai eta txosten guztien egileak ere.

Jardunaldiaren helburuak hauek izan ziren:

- Legearen partaidetzazko ebaluazioa partekatzea eta ezagutzera ematea askotariko gizarte-eragileek legearen aukerei eta mugei buruz emandako iritziak.
- Legea onartu eta 10 urtera lege horrek duen betetze-mailaren berri ematea eta hori garatzean eta aplikatzean sortu diren zailtasunak identifikatzea.
- Ezagutzea nola ari diren aplikatzen emakume eta gizonen berdintasunerako klausulak kontratazio publikoko prozeduretan eta diru-laguntzen deialdietan.
- Araudiaren generoaren araberako eraginaren alde aurreko ebaluazioa ezartzeko esperientziak ezagutzea eta horren emaitzak eta ondorioak baloratzea.
- Berdintasunerako politika publikoen sustapenerako eta garapenerako gaur egungo eta etorkizuneko erronkak identifikatzea.

Jardunaldian «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea azterketapean» lan-koadernoak banatu zen.



Berdintasunerako legearen ebaluazioa



2.3. Zeharkako jardueraren esparru eta zerbitzuak

Emakunderen eguneroko lanean erakundearen nahiz erakundea osatzen duten arlo batzuen eta besteen eguneroko jardunean zeharkako eragina duten zerbitzuak eta lan-eremuak daude. Zeregin juridikoak, prestakuntzakoak, dokumentaziokoak eta ikerkuntzakoak dira. Ezinbestekoak dira Emakunderen arlo bakoitzak programatutako jarduerak egin ahal izateko.

2.3.1. Aholkularitza juridikoa

Emakunderi esleitutako eginkizunetan parte hartu du Emakundeko Aholkularitza Juridikoak: zenbait gairen barneko eta kanpoko izapideak egiten lagundu du – bereziki diru-laguntzen eta hitzarmenen izapideak egiten–, eta arau juridikoak egiteko prozeduretan ere lagundu du; hau da, aplikagarri den araudia berrikusten, horren jarraipena egiten eta eguneratzen. Halaber, Eusko Jaurlaritzako, aldundietako eta EAEko udaletako sailei aholkularitza juridikoa ematen jarraitu du, erakundearen jarduera esparruaren berezko gaietan.

Zehazki, honako hauek izan dira Aholkularitza Juridikoaren eginkizunak:

- Lankidetzeta-hitzarmenak egitea hiru foru-aldundiekin, emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko «Beldur Barik» erakundearteko kanpaina garatzeko eta kofinantzatzeko.
- Generoaren araberako eraginaren aurreko ebaluazioaren txostenak egitea, 4/2005 Legeko 21. artikuluan ezarritakoari jarraituz.
- Eusko Jaurlaritzako sailetako, foru-aldundietako eta tokiko erakundeetako berdintasun-planen txostenak egitea, 4/2005 Legeko 15. artikulua betez.

- Etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriaren biktime diren emakumeentzako arreta hobetzeko tokiko protokolei buruzko txostenak igortzea, udalerriek egiten dituztenak 4/2005 Legearen 62. artikulua betez.
- Txostenak egitea eta ebazpen-proiektuak prestatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko lankidetzeta-erakundeak izendatzeko edo, hala badagokio, izendapen hori kentzeko.
- Emakume eta gizonen aukera-berdintasunaren arloan aholkularitza teknikoa emateko aholkularitza-erakundeen homologazioarekin zerikusia duten txostenak eta ebazpen proiektuak egitea, eta hala badagokio, atzera botatzea.
- Txostenak eta ebazpenak egitea Emakundeko kontratazioetarako eta kudeaketa-aginduetarako, eta Emakunderen kontratazio-mahaletara joatea.
- Emakundek lehiaketa-bidez ematen dituen diru-laguntzen deialdi, emakida eta bestelako intzidentzien (murrizketak, itzulerak, jarduera-aldaketak, errekurtsoen ebazpena, errorezen zuzenketak, luzapenak etab.) ebazpen-proiektuak izapidetzea. Diru-laguntza eta laguntza horiek izan daitezke:
 - emakumeen elkarteak sustatzeko,
 - emakumeen aurkako indarkeriazko portaerak prebenitzeko edota horien inguruan sentsibilizatzeko jarduerak bultzatzeko eta sustatzeko, erakunde, elkarte eta fundazioen aldetik,
 - udalerrientzat eta beste toki-erakunde batzuentzat,
 - enpresa eta erakunde pribatuentzat, aholkularitza homologatuak kontratatu ditzaten, berdintasun-planak egiteko,
 - ikerlanak egiteko,
 - ikerlanak argitaratzeko (IV. lehiaketa)
 - «Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeari buruzko Masterra» egiteko.



- Diru-laguntza izendunak prestatu eta tramitatzea erakunde hauentzat:
 - Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroarentzat, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko dokumentu-funtsak eskuratu, kudeatu, digitalizatu eta zabaltzeko.
 - Euskal Herriko Unibertsitateari, 2017-2018 ikasturtean «*Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterra online*» emateko.
 - Eudel-Euskadiko Udalen Elkarteari, udalerrri txikienei berdintasun-politiketan aholkularitza-zerbitzua garatzen laguntzeko (Berdinbidean); berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sarea garatzeko (Berdinsarea); eta Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluaren Berdintasunaren Batzordean Eudel zuzendari izatea babesteko.
 - Gazteen Euskal Kontseiluari, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan aholkularitza emateko.
 - Argiri Emakume Elkarteari, Irungo Alarde mistoa antolatzeko.
 - Askabide Elkarteari, sexu-esplotaziorako xedez egindako gizaki-salerosketaren biktima izan diren emakumeentzako arreta-programa kudeatzeko.
 - Congregación Oblatas del Santísimo Redentor lagunarteari, sexu-esplotaziorako gizakien salerosketaren biktima izan diren emakumeak hautemateko eta haiei arreta emateko programa kudeatzeko.
 - Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen Fundazioari, «*Mutilak: zer nolako gizonak izango dira?*» ikastaroa egiteko.
 - Kultura, Communication y Desarrollo (KCD) GKEd-ari, «*Film Sozialak*» Zinema Ikusezineko Nazioarteko Jaialdia antolatzeko.
 - Centro Azkuna de Ocio y Cultura SA enpresari, «Arte eta ezagutza feminista» proiektua egiteko, «*Ikuspegi feministak ekoizpen artistikoetan eta artearen teoretan*» ikastaroa gauzatzeko eta «*Ezagutza Feministak Sarean*» proiektua egiteko.
- Centro Azkuna de Ocio y Cultura SA enpresari, arte eta kulturako «*Ezagutza Feministak Sarean*» proiektua egiteko eta gordailu digitala martxan jartzeko.
- Euskal Herriko Bertsozale Elkarteari, emakumeen parte-hartzea sustatzeko bertsolaritzan, genero-ikuspegia ezartzeko eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko.
- Txosten juridikoak egitea Emakundeko Zuzendaritzak, beste administrazio publiko batzuek eta partikularrek eskatuta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko hainbat alderdiri buruz: adingabeen zaintzari buruzko araudia eta erabakiak, Begira, ezkondu gabeko bikote egonkorren erregistroa, tratu txarrak salatu beharra, PFEZ, bekak eta abar.
- «*2017ko Emakunde Saria*»ren deialdia eta ebazpena izapidetzea.
- Herritarren, hainbat erakunderen eta Emakundeko langileen galderei erantzutea eta horiek bideratzea, hainbat gairi buruz: laguntzen deialdiak eta esleipenak, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko legeria, erakunde laguntzaileak eta gizarte-zehapenak aitortzea, tratu txarren biktimen eskubide ekonomikoak, galdetegietan sexuaren aldagaia txertatzea, enplegu publikorako deialdiak eta irismena, hizkuntza inklusiboa, generoaren araberrako eraginaren alde aurreko ebaluazioa, etab.
- Familia-etxearen zerbitzura dauden langileen araudiari buruzko informazio-liburuxka eguneratzea.
- Begira publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku batzordeari laguntzeko taldean parte hartzea.
- Erakundearen administrazio egintza guztien tramitazio elektronikoa.



2.3.2. Prestakuntza

Emakundek, Europako eta/edo nazioarteko erakunde ugari bezala, profesionalen prestakuntza generoarekiko sentsibilitatea adierazten duten politikak garatzeko oinarritzko estrategia dela uste du. Halaber, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak garrantzi handia ematen dio prestakuntzari.

Prestakuntzarekin lotutako jarduerak zenbait jarduera-ildoren inguruan egituratzen dira Emakunden:

Aholkularitza espezializatua

Beste instituzio batzuei prestakuntza-jarduerak antolatzeko aholkuak ematen dizkie, eta edukiak diseinatzeko, irakasleak eta materialak bilatzen eta erakundeak koordinatzen laguntzen die. Zeregin hori gero eta garrantzitsuagoa bihurtzen ari da azken urteetan.

Zeregin horrekin lotuta, nabarmentzekoa da HAEerekiko lankidetzaren eta aholkularitza-lana 2008-2018 aldirako Berdintasunean oinarritutako Prestakuntzaren Zeharkako Planaren garapenean, administrazio orokorraren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura dauden langileentzat. HAEerekin lankidetzan aritu gara berdintasunari buruzko zeharkako prestakuntzaren diseinuan, prestakuntza-premia berriak identifikatzen eta ikastaro berriak proposatzen, bai eta hainbat ikastaroren irakaskuntzan ere: «*Genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa*» ikastaroa (edizio bat), «*Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko oinarritzko ikastaroaren*» (lau edizio) eta, azkenik, «*Genero-ikuspegia duten aurrekontuei buruzko tailerra*» (bi edizio).

Bestalde, aholkuak eman zaizkie hala eskatu duten ikastetxeei eta hezkuntzaren alorreko beste eragile batzuei, bai eta enpresei, emakume elkartei, profesional elkartei eta bestelako erakundeei ere, emakumeen eta gizonen berdintasunerako prestakuntza diseinatzeari eta antolatzeari buruz eta gai horretan adituak diren pertsonak eta horrekin lotutako materialak bilatzeari buruz.



Prestakuntza



Barne-prestakuntza

Prestakuntza-ekintza hauek Emakundeko langileentzat dira, haiek antola ditzaten eta parte har dezaten. Bi helburu dituzte:

- Zenbait gaitan sakontzea eta irizpideak adostea, gai berriak izanik, oraindik nahikoa landu ez direlako.
- Berdintasun-politikak sustatzeko erreferentzia egokiak izan daitezkeen esperientziak ezagutzea.

Otsailaren 17an, 2016an egindako mintegien jarraipenerako beste mintegi bat egin zen Emakundeko langileentzat, eta honako gai hau jorratu zen: «*Interseksionalitatea: sexu-aniztasuna, genero-identitateak berdintasun-politika publikoen barnean*». Helburua gaiari buruz sakontzen jarraitzea zen, feminismoaren beste ikuspegi batzuen hausnarketak kontuan hartuz. Saioa lau ordukoa izan zen eta Maggy Barrèrek, EHUn Zuzenbidearen Filosofiaren irakasleak, eman zion hasiera, «*La interseccionalidad en las políticas públicas de igualdad: dilemas y estrategias en el contexto de la realidad vasca*» hitzaldiarekin. Alicia Miyaresek, filosofian doktoreak eta bigarren hezkuntzako filosofia-irakasleak, jarraitu zuen, «*Le llaman feminismo y no lo es*» hitzaldiarekin.

Azaroaren 9an, beste prestakuntza-saio bat egin zen, bi ordukoa, Emakundeko langileentzat. «*EUSTAT, la información estadística oficial y el sitio web*» izenburupean, erakundeko langileek beraiek aurkeztu zuten: Alicia Barriocanalek eta Jose Jabier Zurikaraiek.

Aipatutako barne-jarduerak alde batera utzita, Emakundeko langileek interesekoak diren prestakuntza-ekimenetan parte hartzen dute, bai HAEERen Prestakuntza Orokorreko Planaren esparruan, bai Emakundek zuzenean antolatutako jardueretan. Aurrerago zehaztu dira, kanpo-prestakuntzari eta gure erkidegoko, estatuko edo beste autonomia-erkidego batzuetako beste erakunde batzuek antolatutako prestakuntza-jarduerei buruzko puntuan.

Kanpo-prestakuntza

Barruko prestakuntza-jardueren antolamendura nahiz beste instituzio eta erakunde batzuek antolatutako jardueretan hizlari gisa parte hartzera bideratuta dago.

JABETUZ programa, emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak artatzen dituzten profesionali zuzendua

Gainera, 2015ean, Emakundek «*JABETUZ*» programa diseinatu eta abian jarri zuen; emakumeen aurkako indarkeriaren biktima direnei arreta ematen dieten profesionalentzako onlineko lehen oinarriko prestakuntza-ikastaroa da.

Programa honen bidez, bateratu egin nahi da Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzeko dagoen sistemako profesionalen ikuspegia. Arreta hori ematen den eremuetako erakundeetan dagoen prestakuntza-eskariari ere erantzun nahi zaio.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da programak, batez ere ikasleen foroetako parte-hartzearen bidez, biktima horiei arreta emateko lan egiten duten profesionalen sarea sustatzen duela eta erakundearteko koordinaziorako bide ematen duela; horrela, biktima horien arreta hobetzen laguntzen du.

Oinarrizko online ikastaroa 85 ordukoa da eta, programa horrekin, «*Etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko EAEko Erakundearteko II. Akordioa*»n jasotako adostasun-ildoak sendotu nahi ditugu, eta, batez ere, akordio horren printzipio orokorretako bat indartu nahi dugu: emakumeen ahalduntzea.

Aurreko urtean bezala, online prestakuntza-ikastaroa bi ediziotan eskaini da 2017. urtean, bata otsailean eta bestea irailean. Guztira, II. Akordio hori osatzen duten erakunde guztietako 100 pertsonak parte hartu dute ikastaro bakoitzeko. Zehazki, Arartekoko, osasunaren, justiziaren, gizarte-bazterkeriaren, etxebizitzaren eta hezkuntzaren arloan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sailtako profesionalak



parte hartu dute: erakunde publikoek, besteak beste, Osakidetzak, Lanbidek, Ertzaintzak, Hezkuntzako Ikuskatzaitzak eta Berritzeguneez, Balorazio Forentse Integraleko Unitateek, Ekipo Psikosozial Judizialek, Gipuzkoako Emakumeen aurkako Indarkeriaren Epaitegiek, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiak, Eudelek, oinarrizko gizarte-zerbitzuetako langileek eta udaletako berdintasun-teknikariek, udaltzaingoak, Legelarien Euskal Kontseiluak eta Medikuen Euskal Kontseiluak.

Prestakuntza horrek bi modulu ditu, eta guztira sei gai lantzen dira. Lehen moduluan bi gai daude: «Esku-hartzearen etorkizuna» eta «Harrera». Bigarrenean, lau gai: «Emakumeen aurkako desparekotasuna eta indarkeria», «Emakumeen aurkako


indarkeriaren inguruko araudi-esparrua», «Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen datu pertsonalen tratamendua» eta «Emakumeen ahalduntze pertsonalerako sustapena eta laguntza, lanbideko esku-hartzearen zati gisa».

Bestalde, II. Akordioaren esparruan, hura osatzen duten erakundeek giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidetik eratorritako betebeharretan aurrera egiteko interesa agertu zuten, baita haurrak babesteko arauditik eta berdintasun-politika publikoetatik eratorritako betebeharrei dagokienez ere. Izan ere, gai batzuetan gehiago sakontzeko beharra hauteman zuten, «Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimen seme-alabak» eta «Aniztasun funtzionala» gaietan, esaterako.

Ildo horretan, 2016an, Emakunde Jabetuz online prestakuntza-ikastaro aurreratua diseinatu eta abiarazi zuen; programak hiru unitate didaktiko eta 35 orduko iraupena du, eta ezagutza eta sakontze-maila handiagoa behar duten gai batzuen inguruan aurrera egiten jarraitzea du helburu.

Horrela, bi lehen unitateetan emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen seme-alabei buruzko araudia aztertzen da, ikuspegi hirukoitz batean oinarrituta: giza eskubideak, haurtzarora eta generoa. Era berean, seme-alabek jasaten duten indarkeriaren ondorioak aztertzen dira, indarkeria-mota horren zuzeneko biktimak direnez. Eta, amaitzeko, azken ikasgaiak emakumeen aurkako indarkeriaren barnean, aniztasun funtzionala aztertzen da, zehazki, desgaitasun fisikoa duten emakumeen egoera eta premiak. Ikastaroa egin ahal izateko ezinbestekoa da aurrez oinarrizko online prestakuntza-ikastaroa egitea.

2017an, 2016an hasitako proiektuari jarraipena emanez, eta martxoan zehar, onlineko prestakuntzako ikastaro aurreratua eman zen, non emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak diren emakumeak artatzen dituzten hainbat erakundetan lan egiten duten 100 profesionalak parte hartu zuten.



Jabetuz



EHUko udako ikastaroak

Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen esparruan, Emakundek Donostiako Miramar Jauregian, uztailaren 3an eta 4an, «*Mutilak: zer nolako gizonak izango dira?*» ikastaroa antolatu zuen. Hauek ziren ikastaroaren helburuak: identifikatzea zein diren mutikoen eta mutilen identitatean eta garapenean eragina duten hezkuntza-mezuak, familia-itxaropenak eta komunikazioko eta zinemako eragipenak; ezagutzea zer esperientziak, estrategiak eta programak laguntzen dioten mutikoen, mutilen eta gizonen garapen integralari eta haiek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko jarrera hartzeari eta ekarpenak egiteari.

Duela 10 urte, Emakundek biltzar bat antolatu zuen, «*Neskatoak dira, emakumeak izango dira*» lemapean, aztertzeke nolako eragina duen generoak –itxaropenak, estereotipoak, genero-rolak– neskatoen identitatean, emakume bihurtzeko eraikuntza-prozesuan eta beren eskubideak berdintasunez erabiltzean. Udako ikastaro horrekin arreta mutikoetan eta horiek gizon bihurtzeko prozesuan jarri nahi izan da: zer mezu jasotzen dituzten (hezkuntza, familia, komunikabideak...) eta nola eragiten duten (edo mugatzen duten) haien garapen integralak, bizikidetzaharremanen ikaskuntzak eta boterea erabiltzeak; indarkeriaren maneia eta benetako berdintasunaren alde duen inplikazioa.

Honako ikastaro hauek eman ziren: «*Aprendiendo sobre las relaciones y el sexo*», Carmen Meneses Falcón; «*Coeducación, la influencia de los mensajes que se envían desde la escuela y la familia*», Marian Moreno Llaneza; «*La igualdad en rodaje*», Octavio Salazar Benítez; «*Programa "H": una experiencia de trabajo internacional con jóvenes y niños para promover la igualdad y prevenir la violencia de género*», Ritxar Bacete González; «*El hombre que éramos y el niño que somos*», Miguel Lorente Acosta. Halaber, mahai-ingurua egin zen «*EAEko esperientziak*» izenburupean, eta honako hauek parte hartu zuten: Raquel Raposo Acevedo, Alixe Rodríguez Gil, Patxi Pérez Giráldez, Juan Manuel Rodríguez Herrero eta



«*Mutilak: zer nolako gizonak izango dira?*» Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroa

Josetxu Riviere Aranda. Haizea Miranda Martínez de la Perak, Emakundeko programa- eta prestakuntza-arloko teknikariak, moderatu zuen mahai-ingurua.



Beste prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduera batzuk

Era berean, Emakundek honako prestakuntza-jarduera hauek antolatu ditu:

- Virginia Imazek «*Berdintasunez jokatzuz berritzea tailerra*» eman zuten Euskalduna Jauregian, maiatzaren 16an, Innobasquek antolatutako Global Innovation Day jardunaldiaren esparruan.
- Emakumeen osasunaren aldeko nazioarteko egunagatiko hitzaldia egin zen maiatzaren 22an, Eusko Jaurlaritzak Bilboko Kale Nagusiaren 85. zenbakian duen areto nagusian, «*Lan-denborak, Europako osasunean genero desberdintasunen adierazlea*» izenburupean; Lucía Artacoz Lazcanok, ASPBn

Osasunaren Sustapeneko zuzendariak eta CEXS-UPF saileko irakasle elkartuak, eman zuten hitzaldia.

- Lan-ikuskaritzarekiko elkarlanerako jardunaldia, izenburu honekin «*Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko lan-ikuskaritza egitera zuzendutako Jardunaldia*». Ekainaren 15ean egin zen, Eusko Jaurlaritzak Bilboko Kale Nagusiaren 85. zenbakian duen areto nagusian Honako hauek aurkeztu zuten jardunaldia: Elena Pérez Barredo, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria, eta Izaskun Landaida Larizgoitia, Emakundeko zuzendaria. Eraberria Gunea SL Berdintasun Aholkularitzak «*Situación de desigualdad de mujeres y hombres en las empresas. Análisis desde una perspectiva de género*» hitzaldia eman zuen. Amparo Ballester Pastorrek, Valentziako Unibertsitateko Emakumeen Ikasketen Unibertsitate Institutuko zuzendari eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzenbideko katedradunak «*Aproximación a la normativa laboral desde la perspectiva de género*» hitzaldia eman zuen.
- «*Berdintasun-politiken lorpenak eta erronkak. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako euskal legerari buruzko ebaluazioaren emaitzak*» jardunaldia. Uztailaren 5ean egin zen Eusko Jaurlaritzak Gasteizen duen egoitzako Euskaldunberri Aretoan. Jardunaldiari hasiera eman zioten Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkullu Rementeriak eta Emakundeko zuzendari Izaskun Landaida Larizgoitiak, «*Aurrerapenak, erronkak eta konpromisoak emakumeen eta gizonen berdintasunerako*» hitzaldiarekin. EHUko Igor Ahedo Gurrutxagak jarraitu zuen, «*Berdintasun legearen ebaluazio parte-hartzailea*» hitzaldiarekin. Era berean, mahai-inguru bat ere egin zen, eta honako hauek parte hartu zuten: Red Kuorum enpresako Helena Ortiz de Lejarazu, «*Berdintasunerako legearen ezarpena 2010-2015*» hitzaldiarekin; ALIA erakundeko Eva Alfama Guillén, «*Generoak arauetan duen eragina ebaluatzeko prozesuak*» hitzaldiarekin; eta Enred Aholkularitzako Lourdes García del Olmo, «*Berdintasun-klausulen aplikazioa kontratuetan eta diru-laguntzetan*» hitzaldiarekin. Jardunaldiaren amaieran, solasaldia egin zen.



Lan-ikuskaritzarekiko elkarlanerako jardunaldia



- Berdintasunerako XIV. Foroan parte hartu zuten erakundeen topaketa, «Berdintasuna nire baitan ere hasten da» izenburupean; irailaren 25ean egin zen Eusko Jaurlaritzak Donostiako Andia Kalearen 13. zenbakian duen egoitzan. Topaketa 2017ko Foroan parte hartu zuten erakundeei zuzendu zitzairen eta Emakundeko zuzendari Izaskun Landaia Larizgoitiak inauguratu zuen. Izaskun La Think on Marketing enpresak koordinatu zuen taldearen dinamika eta helburu hau izan zuen: gonbidatutako erakunde bakoitzaren errealitateak ezagutzea eta horien arteko sinergiak sortzea, helburu eta balioak partekatzea eta Berdintasunerako Foroko erakundeak agerian jartzea eta nabarmentzea.
- Euskaliten «Berdintasuna Kudeaketa Aurreratuan: tresnak eta esperientziak» biltzarrean parte-hartzea; Emakundeko zuzendari Izaskun Landaia Larizgoitiak eta Euskaliteko zuzendari Fernando Sierra Hernándezek Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen eta Euskalit- Kudeaketa Aurreratua fundazioaren arteko hitzarmena aurkeztu zuten. Gainera, Silvia Muriel Gómezek eta Julia de Leónnek «Kudeaketa aurreratuan berdintasuna txertatzeko tresnak» hitzaldia eman zuten eta «Berdintasuneko esperientziak kudeaketa aurreratuan» mahai-ingurua egin zen, honako hauekin: PESA enpresako Alejandro Naya Garmendia, Virtualware enpresako Leire Armentia Lasuen eta Berria Taldeko Doltza Lasa Bartolomé. Biltzarra Euskalitek sustatutako Kudeaketa Aurreratuko XXIII. Europako Astearen esparruan antolatu zen, azaroaren 6an, Bizkaia Aretoan.
- «Berdintasuna kudeatzeko gako berriak» jardunaldia antolatu zen Euskalitek sustatutako Kudeaketa Aurreratuko XXIII. Europako Astearen, azaroaren 16an, Kale Nagusiko 85. zenbakiko areto nagusian. Izaskun Landaia Larizgoitia Emakundeko zuzendariak aurkeztu zuen eta jardunaldiko moderatzailea Ane Miren Fernández Gómez, Emakundeko Programa eta Prestakuntza Arloko teknikaria, izan zen. Hauexek parte hartu zuten:

Leire Gartzia Fernández, Deustuko Unibertsitatean irakaslea eta ikertzailea, «Berdintasunerako esparru berriak: asmotik betebeharrera» hitzaldiarekin. Era berean, Emakundeko Ane Miren Fernández Gómezek, Elhuyarrek Lur



Euskalit Kongresua

Etxebarriak, Agintzariko Arantza Nuñezek eta Zubietxeko Izaskun Rekaldek «Bai Sarea - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzarako Erakundeek osatutako sarearen aurkezpena» hitzaldia eman zuten.





Emakume-elkarteei zuzendutako eta ahalduntzeari buruzko jardunaldia

Jardunaldi amaieran, aintzatespen-plakak eman zitzaizkien honako erakunde kolaboratzaile hauei:

1. Artez Euskara Zerbitzua
2. La Unión autobusak
- 3 Atzegi
4. Asociacion T4 de lucha contra el sida- Hiesaren aurkako T4 elkarte
5. BPXsport Kirol Zerbitzuak
6. Bahía de Bizkaia Gas SL
7. Euskal Editorea SL
8. Prospektiker SA Instituto Europeo de Prospectiva y Estrategia

- Emakume-elkarteei zuzendutako jardunaldia, «*Emakumeen ahalduntzea, interlokuzio soziopolitikorako eta benetako berdintasunerako bidea*» izenburupean; Emakundeko zuzendari Izaskun Landaida Larizgoitiak eta Bilboko Udaleko Berdintasuna, Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta Jaiak saileko zinegotzi ordezkari Itziar Urtasun Jimenok aurkeztu zuten eta honako hitzaldi hauek izan zituzten:

- «*Emakumeen ahalduntzea bultzatzea eta babestea Euskadiko Berdintasun Politiken esparruan*», Emakundeko zuzendari Izaskun Landaida Larizgoitiaren eskutik.
- «*Emakumeen ahalduntzea: bizipenak eta esperientziak zuzenean*» mahai-ingurua, Emakundeko idazkari nagusi Zuriñe Elordiren eskutik; honako hauek parte hartu zuten: Amugeko (Euskadiko emakume ijitoak sustatzeko eta ahalduntzeko kultura arteko elkarte) Noemí García Amaia; Menagaraiko Emakumeen Elkarteko Ana Ugarte Urruela; eta Lagael elkarteko (Laguntza, Garapena eta Elkartasuna elkarte) Juani López Vallejo.
- «*Baliabide eta espazio desberdinak emakumeen ahalduntzerako bidean: pertsona politikoak ere bada*» mahai-ingurua, Emakundeko Programa eta Prestakuntza saileko teknikari Maite Santamaría Zarainek moderatua; honako hauek parte hartu zuten: Basauriko ahalduntze-eskolako Blanca Cadenas Cañón; Fekoor federazioko (Gutxitasun fisikoa edo/ta organikoa duten Bizkaiko pertsonak) Mari Carmen Azkona Domínguez; Dialogue on shelter GKEko (Afrikar hirigintzaren aldeko emakumeen sarea) Marcella Mardon; María de Maeztu Forum Feministako Begoña Etayo Ereña; eta Arantza Urretabizkaia Bejarano, kazetaria eta idazlea.

Jardunaldiaren helburua izan zen topaketa berria egitea EAEko elkarten artean eta, horretarako, hitzaldiez gainera, elkarten arteko bazkaria egin zen eta, bertan, informazioa elkarrekin trukatu eta bertaratutakoek harremanak (berr) ezartzeko aukera izan zuten. Jardunaldia amaitzeko, laneko eta trukeko partaidetza-tailerrak egin ziren. «*Alderdi pertsonaletik alderdi kolektibora*». Jardunaldia Bilboko Bizkaia Aretoan egin zen, 2017ko abenduaren 12an.



Emakundeko langileek eskolak eman dituzte ikastaro hauetan:

- «*Emakumeen kontrako Indarkerian Esku hartzeko Masterra*», Deustuko Unibertsitateak antolatua.
- «*Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Masterra*», Euskal Herriko Unibertsitateak antolatua.
- «*Emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarritzen den prestakuntzari buruzko oinarritzko ikastaroa*»ren 4 edizioa, HAEEk antolatua, eta EAEko administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako langileei zuzenduta.
- «*Generoaren araberako eragin-ebaluazioa*», HAEEk antolatua, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako langileentzat.
- «*Maskulinitateak*» onlineko ikastaroa, Kanaria Handiko Kabiloak eta Kanaria Handiko Las Palmasko Unibertsitateak antolatua.
- «*Mutilak: zer nolako gizonak izango dira?*» EHUko udako ikastaroa.

Hitzaldiak eman dira beste sentsibilizazio jarduera batzuetan:

- Urriaren 17an, Gunea esparruan (Gipuzkoako mugimendu feministekin nahiz berdintasunerako emakumeen elkarte mugimenduekin solaskidetzarako espazioa) Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako «*Indarkeria matxistaren biktimei aitorpena, kalte-ordaina eta eskubideen urraketa lehengoratzeari*» izenburupeko jardunaldian emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen lehengoratzeari buruzko hitzaldia irakurri zen
- Osakidetzak antolatutako Genero Indarkeriari buruzko VI. Jardunaldietan hitzaldi bat eman zen NBEk emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen-bizirik irten direnen arretari buruz dituen kalitate-estandarren inguruan, zehazki abenduaren 14an, Bilboko Basurtu Ospitalean.
- Abenduaren 15ean, Donostian, EDEKA plataformak antolatutako «*Emakumea eta desgaitasuna: eskubide eta aukera berdintasuna*» jardunaldian parte hartu zen.

2.3.3. Azterlanak, ikerketak eta argitalpenak

Beharrezkoa da estatistikek eta azterlanek errealitateak benetan nolakoak diren adieraztea; hau da, genero-harremanak aztertzea, eta aztertzea, halaber, zer eragin duten harreman horiek emakumeen eta gizonen berdintasunik eza dakarten egoeretan. Hartara, berdintasun-ez horiek zuzentzeko politikak diseinatu eta gauzatu ahal izango dira, bai eta berdintasun-eraketako egoera eta modu berriak hauteman eta prebenitzekoak ere. Xede horrekin, Emakundek etengabe hainbat motatako azterlanak egiten ditu, arreta halaber hainbat sektoretan jarrita. Beste alde batetik ikerketa sustatzen du, eta egindako azterlanak hedatzeko jarduerak egiten ditu. Lan-ildo honetan, zenbait jardura sartzen dira, besteak beste: erakundearen beraren argitalpenak eta ikerketan genero-ikuspegia sartzea sustatzeko beken deialdia. Antzeko xedeak dauzka Erakundeko Dokumentazio Zentroak. Zentro horrek aholkularitza eta baliabideak eskaintzen ditu azterlan eta ikerlanetarako, bai Emakundeko eta administrazio publiko guztietako langileentzat, bai ikerketan beste arlo batzuetan (unibertsitateetan edo bestelakoetan) aritzen direnei.

Azterlanak

Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak - 2017

Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak izeneko urteko txostenari esker, emakume eta gizonen errealitatearen deskribapen eguneratua egin ahal da euskal gizarteko eremu sozial ekonomiko eta politiko batzuetan eta besteetan. Txosten hori eginez Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 4. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean biltzen diren lege-xedapenak betetzen dira, emakumeek eta gizonen gizartearen arlo batzuetan eta besteetan daukaten egoera eta posizionamenduari buruz (beharrizanak, egoerak, etab.) ikuspegi orokorra ematen duelako, bai unean unekoa, bai ebolutiboa.




Haren helburua da genero-desberdintasunak hobeto ezagutzea ahalbidetuko duten adierazle eguneratuak eta garrantzitsuak administrazio publikoen eskura jartzea, eta horiek ezabatzerantz bideratutako neurriak eta estrategiak har daitezela erraztea. Xede nagusi horrekin batera, txostenak agente sozial eta ekonomikoak eta hezkuntza arloko agenteak genero-berdintasunari buruz sentsibilizatzea du helburu.

Txosten honek informazioa bildu zeneko urtea aipatzen du. Hain zuzen ere, urte horretan bildu eta aztertu da aztertutako arlo bakoitzean eskuragarri dagoen informaziorik berriena. Horretarako, datu kuantitatibo ofizialak eskaintzen dituzten informazio-iturri nagusiak hartu dira kontuan, Euskal Estatistika Erakundearen (EUSTAT) eta beste estatistika-erakunde batzuen (INE eta Eurostat, batez ere) estatistikak erabiliz. Era berean, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailtako, Estatuko Ministerioetako eta Emakundeko informazioa bildu da.

Txostenak zazpi atal ditu:

1. Demografia-azterketa
2. Hezkuntza
3. Lan sortzailea eta birsortzailea
4. Ekonomia- eta gizarte-baliabideak
5. Osasuna
6. Partaidetza
7. Emakumeen aurkako indarkeria



Ikerlanetarako beka

Ikerlanak egiteko 2017ko beken deialdia 2017ko martxoan argitaratu zen. Beka bakoitzaren zenbateko ekonomikoa (23.333 euro) ezarri zen, bai eta iraupena (10 hilabete) eta deitutako hiru beketako bakoitzaren ikerketa-helburua ere:

- **1. motako beka:** gizartean dauden eremuetan balio-aldaketa gauzatzen lagunduko duten eta gizartea berdintasunerantz eramango duten ekimenak eta proposamenak bilatzea, eta horretarako dauden faktoreak aztertzea.
- **2. motako beka:** egoerak eta desberdintasunak aztertzea askotariko bereizkeria jasateko arriskuan dauden emakumeen kolektiboan, eta bereziki, baliabide sozial eta ekonomikoez baliatzean eta segurtasunean.
- **3. motako beka:** erabaki soziopolitikoak hartzeko eremuetan emakumeek duten sarbidea, parte-hartzea eta eragina aztertzea, eta ekimenak eta estrategiak bilatzea emakumeen ahalduntze politiko eta sozialari laguntzeko.

1. motako bekan 25 eskaera aurkeztu ziren; 2. motako bekan, 15; eta 3. motako bekan, 9. Eskabide guztien zenbaketatik, deialdian 108 pertsonak parte hartu dute: % 88 emakumeak dira eta % 13 gizonak. Balorazioak egin eta elkarrizketa egokiak egin ondoren, hiru beka esleitu ziren eta horien segimendua egin zen, horretarako ezarritako bileren egutegiaren bidez. Gaur egun, 9 pertsona ari dira prestatzen, eta honako gai hauek landuko dira esleitutako beken bidez:

1. MOTAKO BEKA

EGILEA-KOORDINATZAILEA	IZENBURUA	ZENBATEKOA
Taldea: - Jule Goikoetxea Mentxaka (Koordinatzailea)	Eaeko emakumeen despatriarkaliziario maila eta euskal demokraziaren kalitatean duen ondorioa.	23.333 €



2. MOTAKO BEKA

EGILEA-KOORDINATZAILEA	IZENBURUA	ZENBATEKOA
Taldea: - Edurne Murua Arroyo (Koordinatzailea)	Una mirada al maltrato a mujeres adultas mayores: revisión de estructuras y servicios para su adecuación.	23.333 €

3. MOTAKO BEKA

EGILEA-KOORDINATZAILEA	IZENBURUA	ZENBATEKOA
Taldea: - María Carmen Ramilo Araujo (Koordinatzailea)	Participación política de las mujeres en los concejos de Álava: presencias, motivaciones y estrategias.	23.333 €

2016ko beken deialdiari dagokionez, beka-mota guztiak 2017an amaitu dira, aurreikusitakoaren arabera. Hautaketa-batzordeak ikerlanak aztertu ditu, eta egokia izan da guztien emaitza. Gainera, abenduan, «Neomachismo ante las noticias sobre mujeres. Análisis de la participación del público en los foros mediáticos de la CAE» ikerketa aurkeztu zitzaizen komunikabideei; ikerlana Rut Iturbide, Patricia Amigot eta María Isabel Menéndezek egin dute eta EAEko egunkari digitalen foroan bitartez jendeak egiten duen parte-hartzea aztertzen du, genero-ikuspegitik.

Argitalpenen lehiaketa

Profesionalek eta gizarte-eragileek egindako ikerketen argitalpena eta zabalkundea sustatzeko eta laguntzeko, lehiaketaren lehenengo deialdia sortu zen; izan ere, arlo horretan egin diren eta gizartearen interesekoak diren ikerlanak azpimarratu eta erakusgarri jarri nahi dira. Helburu horrekin, 2017ko apirilean emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko 2016ko ikerlanen argitalpenen IV.



Foroetako iruzkin matxistei buruzko ikerlan-beka

Lehiaketa ebatzi zen. Hiru hautagai soilik egon ziren eta, horien puntuazioa ikusita, Hautaketa Batzordeak erabaki zuen lehiaketa esleitu gabe uztea.

2017ko irailean, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko ikerlanak argitaratzeko V. lehiaketaren deialdia arautu zen. Lanok baldintza hauexek bete behar dituzte: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jarrera diferentzialaren eta bizitzaren esparru guztietako genero-harremanen inguruko ezagutza hobetu, desberdintasunak sortzen dituzten kausak hobeto ezagutzen lagundu, eta berdintasun-politiken jardunbide egoki bihurtu daitezkeen ikerlanen emaitzak jakinarazi. V. lehiaketaren ebazpena hurrengo urtean zehar garatu eta egingo da.



Argitalpenak

2017an, argitalpen hauek egin dira:

Txostenak:

38. zk. «2015-2016an emakumeek euskal hedabideetan izan duten presentziari buruzko azterketa»

Bertsio elektronikoa dago, bi hizkuntzatan, Emakunderen web-orrialdean.

39. zk. “Euskal Autonomia Erkidegoko publizitate-agentziak genero-ikuspegitik monitorizatzea, 2016”

Bertsio elektronikoa dago, bi hizkuntzatan, Emakunderen web-orrialdean.

40. zk. “EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Politiken ebaluazioa”:

1. “EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 legearen ebaluazio kualitatiboa 2015”.
2. “EAE-ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 legearen ebaluazio kuantitatiboa 2015”.
3. “EAE-ko kontratu eta diru-laguntzetan berdintasunerako klausulak plikatzeari buruzko ebaluazioa 2015”.
4. “EAE-ko araugintzan generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeko prozesuen ebaluazioa 2015”.

600 ale paperean, argitalpena gaztelaniaz.

500 ale paperean, argitalpena euskaraz.

Bertsio elektronikoa dago, bi hizkuntzatan, Emakunderen web-orrialdean.



40. Txostena: EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Politiken ebaluazioa 2015

Gidak:

22. zk. “Enpresetan berdintasuneko diagnostikoak eta planak egiteko metodologia”.

Genero-ikuspegitik begiratuta kudeaketari balioa emateko gidak.

Liburuxkak:

Emakunderen zerbitzuen katalogoa.

Beste baliabide batzuk:

MS Word-erako euskarazko genero zuzentzailearen eguneraketa.
(Word eta Libreoffice)



Dokumentazio-zentroa

Dokumentazio Zentroak ohiko kudeaketa- eta mantentze-lanekin jarraitu du, baita Zentroak eskaintzen dituen zerbitzuen erabiltzaileei arreta eskaintzetik eratorritako lanekin ere:

- Funts bibliografikoak eta bideografikoak erosi, katalogatu eta indexatzea.
- Aldizkarien harpidetzak kontrolatzea eta horietako artikulua hustea.
- Informazio-eskaerei erantzutea.
- Liburuen inguruan aholku ematea eta eskatu ahalako liburu eta bideoen zerrendak egitea.
- Gai jakin baten inguruko prentsa-oharrak aukeratzea.
- Liburuak eta bideoak mailegatzea.

Zentroaren ohiko kudeaketa- eta mantentze-jarduerari dagokionez, 2017an zehar 250 dokumentu bibliografiko eta bideografiko inguru jaso dira eta 980 erreferentzia dokumental berri gehitu dira bibliotekako datu-basera: % 35 monografiak dira eta % 40 baino gehiago artikulua, dokumentuak... 2017 amaieran, Emakundeko Dokumentazio Zentroaren funts dokumentalean 24750 erreferentzia dokumental zeuden.

Euskarri elektronikoak gero eta protagonismo handiagoa du, eta monografiaren erdia baino gehiago PDFak dira. Azpimarratu behar da, bestalde, dokumentu-erreferentzia berrien % 30 euskarri digitalean (DVD) daudela –173 bideograbazio–. Era berean, Emakundek ekoiztutako ikus-entzunezko dokumentuetako asko digitalizatzeko edo formatuz aldatzeko prozesuarekin jarraitu da, bideo formatutik (VHS) formatu digitalera (DVD) igarotzeko.

Katalogatutako materialen erreferentziekin, hilean behin «*Berrikuntzen buletinak*» prestatzen dira. Horiek hala eskatzen duten Dokumentazio Zentroeiei, Erakundeko teknikariei, Eusko Jaurlaritzako sailtako Berdintasun Unitateei eta azken bost urteetan eskaeraren bat egin duten dokumentazio-zentroko erabiltzaileei banatzen zaizkie, posta elektronikoki bidez.

Herritarrentzako arreta- eta aholkularitza-zerbitzuei dagokienez⁴, kanpoko 215 informazio-eskaerari erantzun zaie (kontsultak, eskaerak, eskabideak). Horietatik % 76 (165 kontsulta) EAEkoak dira, % 15 (33) beste autonomia-erkidego batzuetakoak eta % 6 (8) atzerrikoak.

Posta elektronikoa da kontsultak egiteko gehien erabiltzen den bitartekoa (175 kontsulta 2017an), urte honetan bezala beste bideekiko ehunekoaren beherakada txiki bat egon den arren: 2016an % 85 izatetik 2017an % 81 izatera pasatu da Bestalde, zentrori pertsonalki joaten direnen aurrez aurreko kontsultek pixka bat gora egin dute (20 izan ziren 2016ean eta 25, berriz, 2017an), eta postaz egindako kontsultak ia guztiz desagertu dira, bere garaian faxarekin gertatu zen bezala.

Dokumentu elektronikoaren erabilgarritasun handiagoak –Emakunderen webgunean nahiz Dokumentazio Zentroaren gure katalogoan– dokumentuak deskargatzeko aukera eskaintzen du Emakunderen webgunean, maileguan eskatu beharrik izan gabe, eta hori zuzenean eragiten ari da azken urteetan hauteman den zentrori egindako mailegu-eskaeren beherakadan, baita artatutako telefono bidezko kontsulten kopuruan ere. Horrela, 2017an liburuak mailegatzeko 55 eskaera eta ikus-entzunezko dokumentuak mailegatzeko 10 eskaera erregistratu dira. Telefono bidezko kontsultei dagokienez, urtean zehar 380 dei jaso dira. Aurreko urteetan bezala, dei-kopurua handiagoa izan da azaroan eta martxoan, emakumeenganako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna eta emakumearen nazioarteko eguna direla eta.



Bestalde, dokumentu elektronikoaren eskaera (Zentroan gordetako monografiaren nahiz artikuluen eta dokumentuen, edo sarean kontsultatutako baliabideen eskaera) gero eta handiagoa da. Askotan, Emakundek argitaratu dituen (baita paperean ere) baina agortuta dauden liburuak izaten dira. Sarean eskuragarri dauden beste material batzuei dagokienez, erabiltzaileei Interneten baliabideak edo dokumentuak bilatzen laguntzea edo horretarako jarraibideak ematea izaten da askotan Dokumentazio Zentroaren lana.

Emakundeko langileek egindako barneko informazio- eta dokumentazio-kontsultetan ere hautematen da dokumentu elektronikoaren kontsulta-kopuruaren igoera, eta, horien artean, aldizkari elektronikoetako artikuluen eta doktorego-tesiak gailentzen dira. Maileguz dagokienez, 120 liburu-eskaera eta ikusentzuzko dokumentu, bideo, dvd eta cd-romen 15 eskaera erregistratu dira.

Estatuko beste dokumentazio-zentroekin elkarlanean aritzeari dagokionez, nabarmentzekoa da Emakumeen Dokumentazio Zentroen eta Liburutegien Sareak garatutako jardura eta proiektuetan parte hartu duela Emakundek, hala nola Aldizkarien Katalogo Kolektiboa proiektuan. Oraindik abian dagoen asmo handiko proiektua da, kide diren zentro guztietako aldizkako argitalpenen izenburuak biltzen ditu, oraindik argitaratzen direnak eta ez direnak ere bai. Gainera, «emakumea» gaiarentzat espezifikoa diren indexatze tresnen (thesaurus) berrikuste eta eguneratze kolektiboa egiteko lanetan ere hartu du parte. Horrez gain, urteko bigarren hiruhilekoan funtsean bikoiztuta zeuden liburuak banatu ziren Sareko emakumeen Dokumentazio Zentroetara eta Liburutegietara, eta, urrian zehar, joan den urtean Oviedon antolatutako sareko topaketetan izan ginen.

Bestalde, Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroarekin elkarlanean aritu gara jakintza zabaltzeko diru-laguntza izendun baten bitartez.



Dokumentazio-zentroa





3. **Gizarte osoa** xede duten jarduerak



Gizarte osoa da Emakunderen ekintzen hartzaile eta helburu handia. Memoria honen lehenengo zatian Emakundek batez ere erakunde publikoen eta horietan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko sortutako egitura eta tresnen bidez gizarteari begira sustatutako ekintzak deskribatu dira. Bigarren zati honetan, herritarrei zuzenean zuzendutako ekintzak zehazten dira. Ekintza batzuen zein besteen helburua gizartea emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarritutako eredu baterantz eraldatzea da.

3.1. Emakumeen elkartegintza eta berdintasunaren aldeko mugimenduak sendotu eta bultzatzea

3.1.1. Lan-proiektuak emakumeen elkartekin

Aholku Batzordearen⁵ esparruan garatutako prestakuntza-lanaz eta partaidetzaren bultzadaz gain, Emakundek beste lantalde batzuei laguntzen die eta aholku teknikoak ematen dizkie hala eskatzen duten elkarteei, dela beren proiektuak landu eta ebaluatzeko, genero-ikuspegia txerta dezaten, dela sareak indartu ahal izateko dinamika eta ekintzei buruz, udalerrietan nahiz mankomunitateetan, lurraldeetan, Autonomia Erkidegoan eta Autonomia Erkidegoen artean. Hona hemen nabarmendu beharreko proiektu batzuk:

- EAEko emakume alargunen sareak
- Lurralde-esparruan emakumeen elkartegintza osatzeko batzordea
- Komunikazio-batzordea lurralde-eremuan
- Landa-eremuetako emakumeen elkarteak
- EAEko emakume ijitoen elkarteak
- Erakunde mistoetako emakumeen arloak
- Emakume etorkinen elkarteak

Sareak sortzeko sustapena dela eta, Emakundek Emakumeen elkartekin biltzeko nahiz horiek elkarrekin biltzeko guneak eskaintzen, sustatzen eta finkatzen jarraitu du. Gune horietan, besteak beste, prestakuntza-beharrak landu dira, bai eta antzeko prestakuntza-interesak dituzten elkarten artean koordinatutako

prestakuntza-proiektuak antolatzeko formulak ere. Halaber, jarduketa-ereduak sortzeko lanerako bide eman du, parte-hartze aktiboagorako, bai emakumeen erakundeen barruko barne-dinamikari dagokionez, bai horiek hainbat eremutako sareetan duten parte-hartzeari dagokionez.

Urtean zehar lehiaketa-deialdian parte hartzen duten emakume-elkarteei zuzendutako prestakuntza-proiektua diseinatu eta gauzatu da, izapide elektronikoei eta teknologia digitalei buruzko prestakuntza-eskariari erantzuteko.

Elkarteetako emakumeentzako prestakuntzako eta trebakuntzako ikastaroak egin dira, izapide elektronikoei eta teknologia digitalei buruz. Testuinguru horretan, prestakuntzaren ondoriozko hainbat dokumentu prestatu dira, baliabideak sortzen joateko asmoz, izapide elektronikoko ikaskuntzei eta horien zabalpenari laguntzeko: «*Emakumeen elkartegintzaren prestakuntza digitalerako koaderno praktikoa*» eta «*prestakuntza digitaleko koaderno tekniko*a».

Halaber, babesa eta erraztasunak eman dira komunikazio-plana finkatzeko, Emakunderen Kontsulta Batzordearen lana aintzat hartzeko, agerian jartzeko eta gizarteratzeko eta horren elkarrizketak gizartean duen rola finkatzen laguntzeko. Hori prestatzeko, parte-hartze aktiboa izan dute lurraldeetako Kontsulta Azpibatzerietako elkarten ordezkariak eta Emakunderen Kontsulta Batzordea sortu zenetik egindako lan guztia sistematizatu da.



Aurten prestakuntza-proiektu bat diseinatu zaie Lurralde Kontsulta zpi batzordeei, haien Komunikazio Planaren esparruan, lankidetzako tresnetan oinarritutako komunikazioa sistematizatzeko eta hobetzeko.

Halaber, urte honetan, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak sustatutako lan bat hasi da, Emakume Nekazarien Estatutuaren garapenari jarraipena egiteko; estatutu horretan kontuan hartuko dira emakumeen elkarte-mugimenduek eta beste erakunde batzuek adierazitako premiak eta eskaerak.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen direktorio digitala eta EAEko emakumeen elkarten gida eguneratzen jarraitu da.

Azkenik esan behar da Emakunde estatuko eta nazioarteko emakume-elkarte eta elkarte mistoen eta jarduera antzeko esparruetan egiten duten beste elkarte batzuen arteko elkartrukea bideratzen saiatzen dela.

3.1.2. Emakumeen elkarte eta federazioentzako diru-laguntzak

Aholkularitza teknikoaz eta jarduerak antolatzekeo babesa emateaz gain, Emakundek elkarten jarduera ekonomikoki babesten jarraitu du, diru-laguntzen urteroko deialdiaren bitartez.

Irabazi-asmorik gabeko emakume-elkarte eta -federazioentzat da deialdia, bai eta emakumearen sustapena xede eta jarduera-eremu bakartzat duten fundazioentzat ere. Deialdiaren helburua honako hau da: emakumeen parte-hartzea eta prestakuntza bultzatzen dituzten elkarteak eta jarduerak sustatzea. Emakundek behar duten laguntza teknikoa ematen die, bai proiektuak egiteko prozesuan, bai diru-laguntzak izapidetzeko prozesuan. Gainera, beste administrazio batzuen diru-laguntzen deialdiei buruzko informazioa ere ematen die.

Deialdira aurkeztu diren 134 elkarteetatik, 122k jaso dute diru-laguntza⁶. Guztira, 187 proiektu lagundu dira diruz, eta 376.000 euro erabili dira horretarako.

3.1.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, horren inguruko sentsibilizazioa eta laguntza bultzatzen duten erakunde, elkarte eta fundazioentzako diru-laguntzak

Esku-hartze sozial horren barruan, irabazi-asmorik gabeko erakunde, fundazio eta elkarteek ere funtsezko ekarpena egiten dute indarkeriazko jokabideen inguruan sentsibilizatzen eta prebenitzen eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloan.

Hori guztia dela eta, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, 2017. urtean, jarraitu du ekonomikoki sentsibilizazio eta/edo emakumeen kontrako jarrera indartsuak prebenitzeko ekintzak martxan jartzen dituzten erakundeen jarduerari laguntzen, bai eta indarkeria hori prebenitzeko oinarri gisa berdintasunezko jarrerak sortzera bideratzen dituzten estrategiak dituztenei ere.

Deialdira bideratutako baliabide ekonomikoen zenbatekoa 240.000 eurokoa da. 99 eskabide aurkeztu ziren, eta horietatik 40 diruz lagundutako proiektuak izan dira⁷; aldiz, behar besteko puntuazioa lortu arren, 38 proiektuk ez dute diru-laguntzarik jaso, kreditua agortu delako. Beste 21 proiektuk ez dute gutxieneko puntuazioa lortu.

6. Ikus elkarteak 3. eranskinean: Emakume eta gizonen berdintasunerako proiektuetarako diru-laguntza jaso duten emakumeen elkarte eta federazioen zerrenda.

7. Ikus proiektuak 4. eranskinean: diru-laguntzak jaso dituzten emakumeen aurkako indarkeriazko portaerei buruz sentsibilizatzeko eta/edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioen zerrenda.



3.2. Enpresentzako aholkularitza eta laguntza

Berdintasunean aurrera egiteko, enpresa-kulturan aldaketa gertatu behar da. Soilik ekoizpena kontuan hartzeari uztea eta pertsonak eta haien errealitate anitzak kontuan hartzea. Azterlan ugari agertzen dutenez, pertsonen gogobetetasun handiagoak produktibitatea areagotzen du. Pertsonen gogobetetasun handiagoa hainbat alderdirekin lotuta dago, besteak beste, lanbide-aintzatespenarekin, lanbide-prestakuntzarako eta -sustapenerako aukerekin, lan-bizitza eta familiakoa eta pertsonala uztartzeko aukerekin, etab. Emakundek arlo horretan egiten duen lanaren ardatzak enpresetan sentsibilizazio-lana eta berdintasun-planak landu eta abian jartzeko aholkularitza eta laguntza dira, baita enpresek ildo horretan egiten duten lana jendaurrean aintzatestea ere.

3.2.1. Berdintasun-planak: aholkularitza

Emakundek aholkularitza eman die enpresei eta beste erakunde batzuei berdintasunerako legediari buruz eta eskuragarri dauden baliabide material, ekonomiko eta pertsonalei buruz, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko planak, programak eta jarduerak egin ditzaten beren lan-esparruetan.

Berdintasunerako Legea garatuz joan denez eta enpresetan berdintasuna sustatzeko kontzientzia gero eta handiagoa denez, ikusi ahal izan da informazio-eta laguntza-eskaerek gora egin dutela, eta ez diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko soilik, baita plan horiek abian jartzeko ere. Informazio-eskaeren kopuruak gora egin du enpresa txikien eta kooperatiben artean. Ildo horretan, diagnostikoa egiteko metodologia prestatu da, bai eta 2018an probatuko den Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta enpresa mikro eta txikientzako genero-ikuspegiarako Plana ere.

3.2.2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru-laguntzak

Berriz ere enpresa eta erakunde pribatuek emakume eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta planak prestatzeko laguntza kontratatzeko diru-laguntzen deialdia egin da. Horrez gain, 9 enpresa hauei diru-laguntza eman zaie:

ERAKUNDE ONURADUNAK	Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa (euroak)
Horbel	4.015,56
Euskal Gorra Pertsona Gorren Elkartearen Euskal Federazioa	6.440,00
Centro de Ayuda Especializada, S.L	7.500,00
DYA Bizkaiko Bide Laguntza Elkartea	7.534,40
Gike,S.A	7.000,00
Gisma Asesoramiento, S.L.	2.550,00
Centro San Luis. SL	4.750,00
Zurekin Bus, S.L.	6.000,00
Dos Formación S.L.	3.555,00
Buru Gaixotasuna duten Pertsonen eta Senideen Aiarako Elkartea	9.989,21
Kulturbide Gestion Sociocultural S.L.	2.550,00
Asaser	4.500,00
Achucarro Basque Center for Neuroscience	9.365,40
GUZTIRA	71.734,01



Diru-laguntza esleitu zitzaion erakundeen artean zazpi Bizkaikoak dira, hiru Gipuzkoakoak eta bi Arabakoak. Jarduera-esparruari dagokionez, aipatu behar da erakunde guztiak zerbitzuen sektorekoak direla eta, zehazki, hauek daudela: prestakuntzako bi enpresa, autobus-enpresa bat, ikerketa-zentro bat, ingeniartzako aholkularitza-enpresa bat eta onura publikoko zenbait erakunde. Guztira, zifrei dagokienez, gutxi gorabehera 292 emakumerentzat eta 343 gizonentzat dira onuragarriak erakunde horietako bakoitzean egindako diagnostikoak eta planak (langileak diruz lagundutako erakundeetako plantillan), eta, zeharka, milaka gehiagorentzat.



Lankidetzaren erakunde onartuak

3.2.3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundeak

Figura hori azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuaren bidez sortu zen, gizarte-eta lan-esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde sor daitezkeen ekimenak sustatzeko, baita entitateek arlo horretan egiten duten lana nabarmentzeko ere.

Gero, 2014an 11/2014 Dekretua onartu zen, 424/1994 Dekretua aldatzen duena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 41. artikulua garatuz.

Dekretu berriaren arabera, 2017an emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakunde laguntzaile gisa aitortu dira 9 erakunde. 11 enpresaren eskariak ezetsi dira eta 3 erakundek, berriz, atzera egin dute. Honako hauek dira:

ONARTUAK

1. Artez Euskara Zerbitzua Koop. E.
2. Atzegi
3. Hiesaren aurkako T4 Elkartea
4. BPXPORT Kirol Zerbitzuak S.L.U.
5. Bahia de Bizkaia Gas, S.L.
6. Euskal Editorea, S.L.
7. Prospektiker, S.A.
8. Bidelan Gipuzkoako Autobideak
9. APNAVI Elkartea

EZETSIK

1. BIZITEGI Elkartea
2. Bizkaiko Gurutze Gorria
3. COORDINACIÓN DE SEGURIDAD Y PROYECTOS



4. DONOSTIA KULTURA
5. ADIMEN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO URIBE KOSTA ELKARTEA
6. BILBOMÁTICA, S.A.
7. CENTRO DE ESTUDIOS INATECS, S.L.
8. BIOLAN MICROBIOSENSORES SL
9. GOITU ERAIKUNTZAK S.L
10. ZUBELDIA FORMACIÓN PRESTAKUNTZA
11. Semáforo Ruido SL (NOISMART)

ATZERA EGIN DUTE

1. Nivel Global, S.L.
2. Ilazki Gainza Giraldo y Otra CB
3. Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa

Gaur egun, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzako Erakunde gisa aitortutako 95 erakunde daude.

3.2.4. Aholkularitza-enpresen homologazioa eta jarraipena

Aholkularitza-entitateei informazioa eta aholkuak eman zaizkie, enpresa eta erakundeei gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko homologazioa jasotzeko deialdiari buruz.

Urtean zehar bi enpresak homologatzeko eskabidea egin dute eta biak homologatu dira: OLYMPIA BERRI (Raquel López García) eta KALAKA (Ilazki Gainza Giraldo y otra C.B.)


Bestalde, homologatutako aholkularitza-entitateen jarraipena egin da, homologazioak eskatzen dituen baldintzak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko. Ildo horretan, homologazioa kendu zaio Betean Aholkularitza enpresari, homologazioa emateko irizpide eta betekizunen bat ez betetzeagatik.

Abenduaren 31n emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan homologatutako 20 aholkularitza-entitate zeuden.

3.2.5. Enpresei laguntzeko beste tresna batzuk

Prestakuntzako materialak eta jarduerak lantzea enpresei laguntzeko beste bide bat da. 2017. urtean, honako dokumentu hauek berriro dira.

«**Emakumeen Enplegua Sustatzeko Kontratu-motei eta Laguntzei buruzko Gidaliburua**» eguneratu da. Tresna horren helburua da aholkularitza ematea enpresei eta erakundeei, emakumeen enplegua sustatzeko indarrean diren kontratu-modalitateen, hobarien eta laguntzen berri izan dezaten.



Berdintasunerako tresnak



«**EAEn Emakumeen Ekintzailetza Bultzatzeko Laguntzen Mapa**» **eguneratu da**. Enpresa-jarduera bat abiarazi nahi duten emakumeentzat da, eta, dauden laguntzei buruzko informazioa emanez, ekintzaileei laguntza eta aholku ematen dieten erakunde publiko eta pribatuentzat.

«**Enpresetan berdintasuneko diagnostikoak eta planak egiteko metodologia**» **eguneratuta da**, prestatu da eta lankidetzan aritu da **Berdintasuneko jardunbide egokien bilatzailearen**. diseinuan eta eduki-sorkuntzan <https://www.euskalit.net/berdintasunbilatzailea/>. Tresna horien asmoa da ereduak ematea kudeaketa aurreratuko esparru guztietan berdintasuna txertatzeko.

Gainera, Euskalitekiko hitzarmenaren esparruan, **Genero-ikuspegitik begiratuta kudeaketari balioa emateko Gida** y se ha colaborado en el diseño y generación de contenidos del **Buscador de Buenas prácticas de igualdad en la gestión** <https://www.euskalit.net/berdintasunbilatzailea/> . Tresna horien asmoa da ereduak ematea kudeaketa aurreratuko esparru guztietan berdintasuna txertatzeko.

3.3. Herritarrei arreta zuzena emateko jarduketak, berdintasun-printzipioa eta bereizkeriarik ezarena defendatzeko sektore pribatuan

Atal honetan, Emakundek 2017an zehar sektore pribatuan berdintasun-printzipioaren eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren printzipioaren defentsarako eman dituen zerbitzuak azaltzen dira. Emakundek arlo honetan dituen funtzioak eta mugak otsailaren 16ko 3/2012 Legearen (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzekoa) 64. eta 65. artikuluetan daude jasota, hurrenez hurren.

Aipatutako artikuluekin bat etorritik, lau jarduketa egin dira:

- Eskatzaileei berehalako aholkularitza ematea, telefonoz edo aurrez aurre.
- Txostenak egitea.
- Idatziz erantzuten diren eta aurretiazko azterlana eskatzen duten kontsultak.
- Kexa eta salaketen prozedurak.

Berehalako aholkularitza, telefono bidez eta aurrez aurre, eskatzaileei

Emakundek herritarrei arreta emateko ordutegi bat du, aurrez aurreko kontsultei zein telefono bidezko erantzuteko. 2017. urtean, berehalako aholkularitza emateko 295 kontsulta erregistratu dira, aurrez aurrekoak zein telefono bidezkoak.

Aurrez aurreko arreta-zerbitzua etengabe eskaintzen da Emakunderen Gasteizko egoitzan eta, gainera, aldezturik hitzordua eskatuz arreta pertsonaleko zerbitzua ematen jarraitzen da Bilboko eta Donostiako egoitzetan. Aurrez aurreko arreta-zerbitzuan 58 arreta zenbatu dira.

Kontsulta horietako gai nagusiak, besteak beste, familia, lana eta diru-laguntzak izan dira.



Kontsulta horiek egin dituzten pertsonen profilari dagokionez, % 8 gizonak izan dira eta gainerako % 92a, berriz, emakumeak.

Aurretiko azterlana eta kexa- eta salaketa-prozedurak behar dituzten kontsultak

Aurretiko azterlana eta kexa- eta salaketa-prozedurak eskatzeagatik idatziz erantzundako kontsultak guztira 195 dira, eta horietatik 70 kontsultak izan dira (% 36), 91 kexak (% 47) eta 34 salaketak (% 17).

2017ko datuek nolabaiteko igoera islatzen dute aurreko urteko kasuekin alderatuta; zehazki, aurten 22 prozedura gehiago egon dira. 2017an komunikabideei eta publizitateari buruzko kexak bidaltzeko Begira aplikazio berria martxan jarri zenetik gertatu da igoera hori.

Eskatzaile gehienak posta elektronikoaren bidez komunikatu dira kontsultak eta salaketak egiteko. Aldiz, kexa gehienak publizitate eta komunikazio sexistei buruzko kexak hautemateko Begira aplikazioaren bidez heldu dira.

Prozedura horien eskaera-egileen gehiengoa emakumezkoak izan dira eta gizonak 32 eskaera egin dituzte, guztia eskubidearen titularra edo kasuaren xede-objektua gorabehera. Ditugun datuak aztertuta, kexak bidaltzen dituzten pertsonen profila egin daiteke (gutxi gorabehera), eta kexen ezaugarri orokorrak ondorioztatu. Profil hori ez da aurreko urtekoaren oso bestelakoa: unibertsitate-ikasketak eta 31 eta 40 urte bitartean dituen emakume bat, kexa bere izenean egiten duena.

Kontsulta-, kexa- eta salaketa-prozedura horiek komunikabideei eta publizitateari (% 43) eta lan-eremuari (% 27) buruzkoak izan dira batez ere. Azken talde horretan, argi eta garbi, nagusi dira familiarekin, dibortzioekin eta banaketekin, saltokiekin eta zerbitzuekin lotutako kasuak. Horien % 19 lan-eremuko gaiak izan dira, bereziki emakumeek haurdunaldian eta edoskitzaroan zehar dituzten

eskubideei buruzkoak, bai eta familia eta lana bateragarri egiteko eskubideei buruzkoak ere, jardunaldi-murrizketarekin lotutakoak batez ere. Azkenik, kasuen % 5,5 elkarre-eremuari buruzkoak eta % 4,4 kirolaren alorrari buruzkoak izan dira.

3.4. Gizarte-sentsibilizazioa

Berdintasuna benetan lortu ahal izateko, emakume eta gizonen portaerako jarraibide soziokulturalak dibertsifikatu eta aberastu behar dira eta gure izaeran sustrai sakonak dauzkaten balio batzuk aldatu behar dira. Horien ordez genero-zereginen atribuzio soziala etxean zein lan-arloan murriztuko duten beste batzuk ezarri behar dira, zaintza-lana beharizan sozial eta erantzukizun konpartitu gisa ikusaraziko duten balioak, pertsona guztien berdintasunarekiko konpromisoa sendotuko dutenak, sexu biei balio eta prestigio bera emango dietenak, eta bereziki gizonari dagokienez, gizonen eredu tradizionala auzitan jarri eta berdintasunarekin koherenteak diren jarrera eta portaerak garatuko dituztenak.

Nahitaez sentsibilizatu behar da gizartea oro har, bai eta gizartearengan berdintasunean oinarritutako eredu batera aldatzeko behar diren inguruan eragiten duten profesional, gizarte-eragile eta bestelako erakundeak ere. Hori dela eta, Emakunderen zereginetako bat da gizarte-sentsibilizazioko ekintzak egitea, eta horien artean nabarmentzekoak dira jardunaldiak, kanpainak, aldizkari digitala eta web-ingurunea, berdintasunerako Emakunde saria eta eztabaida-taldeen eta komunikabideetan etengabe parte hartzea.

Emakume eta gizonen berdintasunerako sentsibilizazioa funtsezkoa da desberdintasunaren ondoriozko arazo, desoreka eta bidegabekeria guztiei aurre egiteko, eta horien artean larrienari, emakumeen aurkako indarkeriari, alegia.



3.4.1. Nahiko programa

Nahiko programa hezkidetzeta-programa bat da. Lehen Hezkuntzan erabiltzen da, eta berdintasuna, errespetua eta indarkeriarik eza sustatzea du helburu. Programan, eskola-egutegiaren arabera lan egiten da; beraz, 2017ko datuak bi ikasturtetan banatzen dira: 2016-2017 eta 2017-2018. 2016-2017 ikasturtea 2015-2017 arteko biurteko edizioaren barruan dago; aldiz, 2017-2018 ikastaroa 2017-2019 edizioaren barruan; ikastetxeen datuak berdinak izan arren, beste ikastetxe batzuek parte hartzen dute. Bi ikasturteetan, 36 ikastetxek hartu dute parte; ikastetxe horiei laguntza eta gaikuntza eman zaie Hezkuntza Sailarekin batera egindako deialdian, genero-indarkeria prebenitzeko eta baterako hezkuntzarako gida-planaren esparruan. Ikastetxe horiek Lehen Hezkuntzako 2.780 ikasle baino gehiago izan zituzten 2016-2017 ikasturtean, eta zifra hori 4.129 ikaslera iritsi da 2017-2018 ikasturtean.

2017an, honako hauek izan dira jarduketak nabarmenenak:

- 3 prestakuntza-jardunaldi orokor egin dira, programan parte hartzen duten irakasle guztiei zuzenduak (157 emakumezko irakaslek eta 41 gizonzko irakaslek parte hartu dute guztira); horietan, programaren garapenaren kontu orokorren berri emateaz gainera, hainbat gai aztertu dira, ikasgelako lanarekin lotuak, berdintasunetik:
 - Urtarrilaren 17an egindako IV. Jardunaldi Orokorra; June Fernandezek «*Formatu tradizionalerako eta egungo formatuetako hedabideak eskolan hezkidetzaren ikuspuntutik*» izeneko hitzaldia eman zuen, eta Aizea Villareal Juarrosek «*Itxura pertsonala, autoestimua eta onarpena berdintasunaren ikuspegitik*» izenekoa. 53 emakume eta 5 gizon bertaratu ziren.
 - Maiatzaren 4ko VI. Jardunaldi Orokorra; Concepción Cazorla Vergelek «*Maitasuna, elkarbizitza, berdintasuna eta emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioa*» izenburuko hitzaldia eman zuen eta programan parte hartu zuten bi ikastetxek



Nahiko, Topaketa 2015-2017

osaturiko mahai-inguru bat egin zen, ikastetxeek eremuen erabilerari buruz egindako ekarpenak azaltzeko. 45 emakume eta 4 gizon bertaratu ziren.

- Ekainaren 5ean egindako 2015-2017 Topaketa. 2015-2017 edizioa amaitzean, programan parte hartu duten ikasleekin eta irakasleekin topaketa egin zen. Euskalduna Jauregian izan zen eta 356 ikaslek eta 29 irakaslek parte hartu zuten.
- Azaroaren 8an egindako I. Jardunaldi Orokorra; Marina Subirats i Martorik «*Coeducación: ¿qué y para qué?*» (Hezikidetzeta: zer eta zertarako?) izenburuko hitzaldia eman zuen, eta Luixa Reizabal Arruabarrenak «*Metodología de la coeducación: observar e identificar desigualdades y hacer cambios para*





Nahiko, Euskalduna jauregiko topaketa

la igualdad» (Hezkidetzaren metodologia: desparekotasunak ikustea eta identifikatzea eta berdintasunaren aldeko aldaketak egitea) izeneko. 43 emakume eta 10 gizon bertaratu ziren, Berritzeguneko irakasleak eta partaideak

- Hiru hilean behingo 13 mintegi egin dira; 2015-2017 edizioan mintegi bat egiten zen ziklo bakoitzeko, baina 2017-2019 edizioan, ziklo hasieran soilik beharrean parte-hartzea edozein ikastarotan has daitekeenez, ikastarokako mintegiak egiten dira. Mintegiotan berariazko prestakuntza eman da, hiruhileko bakoitzean landuko diren unitate didaktikoak ezagutarazi dira, digitalizatutako material berriak probatu dira eta aurreko hiruhilekoko esperientzia ebaluatu da.

Mintegietan 157 emakumezko irakaslek eta 41 gizonzko irakaslek hartu dute parte guztira.

- Banakako laguntza eman eta segimendua egin da, ikastetxe partaideek halaxe eskatuta.
- Programan digitalizatutako materiala dago unitate didaktikoak gauzatzeko, eta horretarako erabileran edo martxan jartzean sor daitezkeen behar informatikoetarako aholkularitza ematen da.
- Gainera, programako material guztiak digitalizatzeko prozesu bat amaitu da; irakasleen gidak, familia eta ikasleen koadernoak eta jolas guztiak probatu dira eta erabileran hautemandako hainbat hobekuntza egin dira.

3.4.2. Beldur Barik programaren esperientzia pilotua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan

2014an, Emakundek esperientzia pilotua jarri zuen martxan, Hezkuntza Sailaren hezkuntza-sisteman, genero-indarkeria prebenitzeko eta baterako hezkuntzarako Gidari Planaren esparruan, 2013. urte-amaieran.

Esperientzia pilotu horretan Beldur Barik kanpaina indarrean egon den urteetan⁸ gazteek garatutako ikus-entzunezko edukiak didaktika-helburuetarako erabili da, ostean Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan baliatu ahal izateko. Azken finean, esperientziaren helburua da hezkuntza arautuaren esparruan gazteriarentzat interesgarriak diren gaiak lantzea, gazteek eurek egindako bideoen bitartez.

Esperientzia pilotu honen lehen urratsa izan zen Beldur Barik programatik bigarren mailako zentroetako irakasleei ezagutza transferitzeko beharrezko programazio eta baliabide pedagogikoak diseinatzea eta egitea. Guztira, 19 unitate didaktiko eta irakasleentzako dossier teoriko bat egin ziren.



Gainera, osatutako materialaren interesa ikusita, ikasgeletan probatzea erabaki zen. Horretarako, hurrengo urratsa izan zen irakasleak prestatzea, zuzenean ikasgelan esku hartu ahal izateko prestatutako materialarekin; prestakuntza-prozesu hori 2014ko irailean hasi zen, Baterako Hezkuntzaren Planaren lehen deialdiko 16 ikastetxeekin eta guztira 106 irakaslerekin.

2015ean, irakasleentzako prestakuntza osatu zen hezkidetza-planaren lehen deialdiko 16 ikastetxeri ikasgelako esperientziaz egiteko banakako aholkularitzarekin, eta esperientziak elkarri trukatzeko bilkurak egin genituen parte hartu duten ikastetxeekin. Horrez gain, hezkidetza-planaren bigarren deialdiaren 34 ikastetxeetako irakasleei prestakuntza eman genien.

2016an, ikasgelako esperientziorako banakako aholkularitza eskaini zitzaion, 2015ean jasotako prestakuntzaren ostean, programarekin jarraitu zuten hezkuntza-planaren bigarren deialdiko 30 ikastetxeri. Horrez gain, hezkidetza-planaren lehen eta bigarren deialdiko ikastetxe parte-hartzaileen (46 ikastetxe, guztira) esperientziak trukatzeko saioak egin ziren.

2017an esperientzia pilotu osorako kanpoko ebaluazioa kontratatu da, zertarako eta lortutako emaitzak, irakasleek eta ikasleek programarekiko izan duten onarpen-maila eta etorkizunean programarekin jarraitzeko egokitasuna ebaluatze aldera.

3.4.3. Volar, indarkeriatik bizirik irten diren emakumeen ordainerako proiektua

2015ean, pairatutako kaltea ordaintzeari buruzko Emakunderen proiektu baten barruan, bizirik irten diren emakumeen Haize Berria, Mujeres al Cuadrado eta Mujeres que aman demasiado elkarteetako emakume-talde bat elkartu zen, gizarteak ordainerako prozesu horretan nola lagundu zezakeen aztertzeko. Hainbat gai jorratu zituzten: jasotako indarkeriak eragindako estigma eta lotsa, biktimen eta kaltegileen rolen deuseztatzea, etab.



Beldur Barik Kartela



Lan-prozesu horren ondorioz, bederatz emakumeek film bat egin zuten. Volar filmean, askotariko adinetako eta lanbidetako emakume horiek elkarrekiko antzekotasunak ikusten dituzte, hitz egin beharrik gabe, eta jasandako sufrimenduari zentzua ematen diote beren kontakizunen bidez. Filmean, protagonistak beste emakume batzuen eta gizartearen eskuetan uzten dute beren bizitza-ibilbidea.

Volar filma, Bertha Gaztelumendik zuzendua, Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuten irailaren 26an. Halaber, filma Bilbon, Gasteizen eta Donostian proiektatu zuten urriaren 2an, 3an eta 4an. Gainera, Emakunde herritarrei eta elkarteei eskaini die filma, jendea sentikortzen jarraitzeko emakumeen kontrako indarkeriak

eragiten duen sufrimenduari buruz. Era berean, udalak eta elkarteak Volar filmeko emakume protagonistekin harremanetan jartzea erraztu da, proiektzioen ondoren eztabaida-foroetan egon zitezten, beren esperientziei buruz hausnartzeko eta herritarrei gizarte-aldaketari buruz sentikortzeko. 2017an estreinatu zenetik, protagonistak 40 proiektzio baino gehiagora joan dira.

3.4.4. Gizonduz ekimena

Gizonduz ekimen aitzindariaren xedea gizonak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gehiago inplikatu daitezten sustatzea da. Honako helburuak ditu:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan eta emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurka sentsibilizatutako eta inplikaturako gizonen kopurua handitzea.
- Gizon gehiago prestatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan.
- Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzunkidetasuna areagotzea.

2017an, honako jarduera hauek egin dira, Gizonduz ekimenaren barruan:

Berdintasunaren aldeko gizonen arloan espezializatutako webgunea (www.euskadi.eus/gizonduz) administratzea. Webgune horrek ekimenari buruzko informazio zabala hainbat euskarritan eskaintzen du, hala nola elkarriketekin osatutako atalak, dokumentazio gunea, bibliografia, bideoak, webgune interesgarrietarako loturak, etab. Gainera, bloga ere eskura dago, herritarrei zabalduriko gunea, berdintasunarekin, gizonekin eta maskulinitasunarekin zerikusia duten berriei buruzko iritziak, hausnarketak eta iruzkinak adierazi ahal izateko. 2017an, 6 elkarriketa eta blogeko 75 sarrera argitaratu direla azpimarratu behar da.

Sare sozialetan parte hartzea. Gizonduzek Facebooken duen orria eta YouTube, Vimeo eta Twitterren dituen profilak administratu dira, eta aldi berean



“Volar” filmaren aurkezpena



eguneratu egin dira. Nabarmenezkoa da Facebooken 2017an 4.956 jarraitzaile izan genituela (% 59 gizonak), 1.620 Twitterren eta 2.362 ikustaldi YouTuben.

Sentsibilizazio- eta prestakuntza- programa. 2017an jarri zen abian programa honen bederatzigarren edizioa. Zenbait ikastaroz osatuta dago; batzuk aurrez aurrekoak dira eta beste batzuk, berriz, Internet bidezkoak. Ikastaroak doakoak dira, era askotako eskaintza zabala dute, eta egokitzeko modukoak eta malguak dira. Emakumeek parte hartzeko aukera badute ere, interes pertsonala duten edo ikuspegi profesionalek, emakume eta gizonen berdintasuna zer den eta horren alde nola lan egin daitekeen jakin nahi duten edo gai horretan prestatu nahi duten gizonentzat bereziki zuzendutako ikastaroak dira. Alde horretatik, gizonen balio eta jarrerekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako gaiak lantzen dira, eta zenbait gai aztertzen dira, hala nola, osasuna, zainketa, aitatasuna, sexualitatea, bide-segurtasuna, emakumeen aurkako indarkeria, toxikomanien prebentzioa, kriminalitatearen prebentzioa... 2017an, 365,5 prestakuntza-ordu inguru eman dira, eta antolatutako ikastaro batzuetan eta besteetan 500 gizonak eta 383 emakumek hartu dute parte

«**Gazteak Berdintasunean 2.0» proiektua.** Proiektu horren bitartez nerabe eta gazteen eta, bereziki, gizonen kontzientziazioa eta inplikazioa bultzatu nahi da, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra; horretarako, hezkuntza-tresna berritzaileak erabiltzen dira, teknologia berrietan oinarrituta. Atal hauek ditu proiektuak:

- Online abentura grafiko bat (bideo-joko bat): erabiltzaileei egoera batzuk adieraziko zaizkie, eta proba batzuk egin eta ebatzi beharko dituzte; hau da, egoera sexistak, homofoboak, indarkeriazkoak eta abar izango dituzte, eta erabaki bat hartu beharko dute zenbait aukeraren artean.

- Unitate eta fitxa didaktikoak, irakasleei zein ikasleei zuzenduta.

2017. urtean zehar, proiektua eta horren osagaiak probatu dira 6 ikastetxetan eta udalerrri batean, kaleko jarduera batean. Aipatu prozesuan, honako hauek parte hartu dute: Ipintza BHI (Bergara), Uribe-Kosta BHI, Margotu Lanbide Heziketako Ikastetxea (Bilbao), Lakua BHI (Gasteiz), San Bizente Ikastola (Oion), Irungo BHI eta Ugao udalerrria. Irakasleentzako ikastaroetan 35 lagunek parte hartu dute: 24 emakume eta 9 gizon; ikasleentzako ikastaroetan, aldiz, 538 lagunek: 268 emakume eta 270 gizon.



Gazteak Berdintasunean 2.0



Berdintasunari buruzko unibertsitate-master eta -graduondokoen eta HAEEn ikastaroen publizitatea egitea, bai eta Berdintasunerako Gunearena ere.

Gizonak prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduera horietan parte hartzera bultzatzeko, Gizonduz ekimenak horien publizitatea egin du Gizonduzen webgunearen eta sare sozialen bidez.

Martxoaren 19ko kanpaina. Aitaren eguna dela-eta, sentikortze-ekintza egin da, berdintasunezko aitatasun positiboaren alde.

Jardunaldiak eta hitzaldiak. Gizonduz ekimenaren «Mutilak: zer nolako gizonak izango dira?» ikastaroan egiten den lana ezagutarazi da; ikastaro hori Emakunde antolatzen du, EHUko udako ikastaroetan.

Beste sentsibilizazio-jarduera batzuk. Gizonduz ekimena ezagutzera emateko, Emakunde zenbait komunikabidetan agertu da, eta beste erakunde batzuek antolatutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduera ugaritan parte hartu du. Adibidez, hauetan:

- «Gizonak ezinbestekoak dira benetako berdintasuna lortzeko» jardunaldiak, ASPEGI FOROaren barruan (Gipuzkoako Emakume Profesional eta Enpresarien Elkarte).
- «Buenos tratos en las relaciones» (Tratu onak harremanetan) Jardunaldi Zientifikoa, EHUk antolatua, Indarkeria Matxistari buruzko II. Jardunaldietan.
- «La implicación de los hombres a debate» (Gizonen inplikazioa eztabaidan) Jardunaldia, Zarautzeko Udalak antolatua.

3.4.5. Kanpainak

Martxoaren 8ko kanpaina. Emakumeen Nazioarteko Eguna

Emakumeen Nazioarteko Egunagatik martxoaren 8ko kanpaina 2017an diseinatu zen eta gure gizartean berdintasuna sustatzen duten jarrera pertsonaletan jarri zuen begirada. «Berdintasuna nire baitan ere hasten da» izan zen kanpainaren lema eta, hainbat adibideren bidez, beren hurbileko ingurunean izandako hainbat jarreraren edo ekintzaren bidez berdintasunaren alde jardutea erabaki duten pertsonak agertzen ziren. Horrela, kanpainak bizitzako hainbat esparrurekin lotutako zenbait adibide aurkeztu zituen: txiste matxisten kateak moztea erabaki duen gizona; bere alabari norbere burua maitatzea ezinbestekoa dela eta bikotekidea edukitzea, berriz, ez erakutsi nahi dion emakumea; bere semearen lehenengo abizena amarena izatea erabaki duen aita; publizitate sexistarekin



Martxoaren 8ko kanpaina



iragartzen diren produktuak gehiago ez erostea erabaki duen emakumea; bere ikasleei feminismoak gizaritari egin dizkion ekarpenak irakasten dizkion irakaslea; bere semeari «Ez ezetz da» esaldiaren esanahia irakatsi nahi dion aita; sexua eta arraza traba izan gabe, pertsonen gaitasuna lehenesten duen enpresa.

Kanpainak otsailaren 28tik martxoaren 14ra iraun zuen eta bideoak, iragarkiak eta kartelak erabili ziren, kanpaina kanpoko euskarrien, komunikabideen eta sare sozialen bidez jendarteratzeko. Gainera, kartelak bidali zitzaizkien erakundeei, ikastetxei, osasun-zentzoei, elkartei, enpresei, kultura-zentzoei, liburutegiei, etab.

Eskola-agenda

2017an, eskola-agenda (2017-2018) prestatu da; agendak berdintasunarekin eta pertsona ororen errespetuarekin lotutako eguneroko egoeretan eragiten duten mezuak jasotzen ditu. Agenda honen bidez (EAEko DBHko 1. eta 2. mailako ikasle guztiei banatu zaie), honako gai hauekin lotutako mezuak zabalduta dira: bizi-proiektuak hautatzeko askatasuna, «nesken gauzak» eta «mutilen gauzak» daudela markatzen dituzten estereotipoekin amaitzeko beharrezana, pertsonen zaintzaren garrantzia eta zaintza-lana partekatutako izateko beharrezana, etxeko lanak banatzeko beharra, aniztasunarekiko errespetua (sexua, arraza, baldintza fisikoa...), pertsonen autonomia sustatzeko beharra, gorputz perfektuen tiranotasuna salatzen dituzten mezuak, autoestimua sustatzeko eta sentimenduak adierazteko beharra (neskak ala mutilak izan), neska eta mutilen artean adiskidetasuna partekatzeko beharra, emakumeen jakintzak ezagutzea belaunaldi berrien eredu izateko etab.

Azaroaren 25eko kanpaina. Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna

2006az geroztik, kontzientziazio-kanpaina bat egiten da urtero Berdintasunaren esparruan, Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunean. 2013tik, Emakunde kanpaina hau sustatzeko eta kudeatzeko ardura du;

horretarako, zuzenean sustatzen du diseinua, garapena eta ebaluazioa, hiru foru-aldundien eta Eudelen laguntzarekin eta Hezkuntza Sailarekin, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta EITBrekin lankidetzan.

Azaroaren 25eko kanpainaren esparruan, Beldur Barik programa garatzen da; gazteei zuzenduta dago. Programa honen helburu nagusia da emakume gazteen aurkako indarkeria prebenitzea eta, horretarako, neskei indarkeria sexista identifikatzeko eta hari aurre egiteko tresna eta baliabideak ematea eta mutil gazteekin beren jarrera sexistak prebenitzeko lan egitea eta beren eguneroko ingurunean eraso sexistak saihesteko rol aktiboa hartzea animatzea. Neska eta mutilekin indarkeria sexistaren egungo egoera gainditu ahal izateko jarrera eta jokabide indibidualak eta kolektiboak eraiki nahi dira.

Beldur Bariken barruan, hainbat jarduera programatzen dira; horietan helburua da gazteen inplikazio eta parte-hartze aktiboa, besteak beste Beldur Barik lehiaketa eta amaierako Topaketa, programa integral honen jarduera eratzaile gisa.

2017ko ekitaldiari dagokion zazpigarren edizio honetan, programan izandako parte-hartzeak gora egiten jarraitu du eta oso altua izan da, aurreko hiru edizioetan bezala, honako hauek kontuan hartuz gero: parte hartu duten udalerrien kopurua (129), lehiaketan aurkeztu diren lanen kopurua (390), lanetan esku hartu duten gazteena (2.664 gazte, 1.587 neska, 1.037 mutilak eta 40 gazte ez dute beren sexua adierazi), eta Eibarren egindako Topaketan izandako parte-hartzaileak (350 gazte sari-banaketan eta 128 tailerretan). Beraz, urterik urte hobetzen dira parte hartzeari buruzko datuak. Ildo beretik jarraituz, programaren webgunera egindako 394.327 bisitek Beldur Barik programak gazteen artean pizten duen interes handia islatzen dutela azpimarratu behar dugu, baita sare sozialetatik egiten den jarraipenak ere; izan ere, programak 3.831 jarraitzaile ditu Facebooken, 2.000 Twitterren, 627 Instagramen eta 159 Spotifien. Beldur Barik Lehiaketaren herri-botazioan, 8.974 pertsonaren botoa erregistratu da guztira.





Beldur Barik Topaketa Eibarren

Zehatzago esateko, Beldur Barik lehiaketaren helburua da gaur egun emakumeek nozitzen duten desberdintasun-egoerari aurre egiteko, mutikoek eta neskatilek hartzen dituzten jarrerak eta jokabideak islatzen dituzten adierazpen artistiko indibidual edo kolektiboak onartzea, baloratzea eta bultzatzea; adierazpen horietan ikusten baita, hain zuzen, errespetuan, berdintasunean, askatasunean eta autonomian, ardura partekatuan eta emakumeen kontrako indarkeriarekiko arbuio irmoan oinarritzen direla aipatu jarrerak eta jokabideak.

Lanak aurkezteko epea 2017ko irailaren 11n ireki eta azaroaren 13an itxi zen. Parte-hartzeko bi kategoria zeuden: batetik, 12 urtetik 17 urtera bitartekoak, eta, bestetik, 18 urtetik 26 urtera bitartekoak. Aurreko edizioetan bezala, banaka edo taldeka parte hartu ahal izan da, ikastetxe, gela edo elkarte gisa.

Sari-banaketa abenduaren 2an izan zen, Beldur Bariken 2017ko Topaketan, Eibarren; ekitaldira 350 pertsona joan ziren. Arratsaldean zehar, 128 gaztek aktiboki parte hartu zuten antolatutako 8 tailerretan; horietako 3 neskentzat izan ziren: «Aktibismoa umorearekin, bi aldiz hobe», «Autodefentsa feminista» eta «1, 2, 3... ligatzeko 3 pausu». Beste bi tailer gizonentzat izan ziren: «Sexua, moda eta reggaetoia» eta «1, 2, 3... ligatzeko 3 pausu». Eta beste hiru tailer mistoak izan ziren: «Erreboluzionatu zure Instagram eta Whatsappeko profilak BB Jarrerarekin» eta «Abestiak bertsiionatuz BB Jarrerarekin».

Beldur Barik programaren 2017ko lan-estrategiari dagokionez, udalek tokiko ekimenak gara ditzaten sustatzen jarraitu da. Hori dela-eta, programaren aldetik aholkularitza eta laguntza sendotu dira parte hartzen duten udalerrietan tokiko hausnarketa-prozesuak eta gazteak mugiarazteko prozesuak diseinatu eta garatzeko orduan. Gainera, jarraitu da ikastetxeen parte-hartzeari bidea ematen, bai eta emakumeen elkarteekiko eta mugimendu feministarekiko lankidetzari ere.



3.4.6. Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako gunea

Emakundek irailaren 25aren eta abenduaren 15aren artean 2017ko Berdintasunerako Foroa jarri zuen martxan; baterako espazio horretan, erakunde publiko eta pribatuek emakume eta gizonen berdintasunarekin lotutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak antolatzen dituzte, eremu horretan Euskadin egiten den lana ikusarazteko.

2017an, Foro horren hamalagarren edizioa egin da. Martxoaren 8a ospatzeko Emakundek sustatutako kanpainaren leloa jaso du: «Berdintasuna nire baitan ere hasten da». Helburu nagusietako bat berdintasunaren mezua pertsona eta herri gehiagotara helaraztea izan da; horregatik, aurtan ere unitate ibiltari bat izan dugu, foroaren mezua gehiago ikusarazteko EAEko herri askotan.

Gainera, zenbait erakundek, elkartek, enpresak eta udalek eskatuta, autobusa horiek antolatutako jarduera batzuen topaleku izan da, eta, aldi berean, herritarrengandiko hurbiltasuna sustatu da. Bestalde, unitate mugigarria eskola-ikasgela bezala erabili da; bertan, berdintasun-teknikari bik zenbait tailer eman dituzte: publizitate sexistari buruzkoa, sexismoa zineman eta Nahiko eta Beldur Barik programak, besteak beste.

124 erakundek parte hartu dute: elkarteak, enpresak, fundazioak, Eusko Jaurlaritzako sailen zuzendaritzak, unibertsitateak edo ikastetxeak, alderdi politikoak, enpresa-elkarteak, elkargo profesionalak, udalak eta sindikatuak. Guztira, 182 jarduera egin dira 56 herritan, eta 10.500 lagunek baino gehiagok parte hartu dute.

3.4.7. 'Emakunde' aldizkaria argitaratzea

Formatu digitalaren aldeko apustua sendotu du Emakunde aldizkariak 2017an. Apustu hori egin da, teknologia berriek ematen dituzten abantailez baliatzeko; hau da, ingurumena zaintzeko eta kostu ekonomikoak murrizteko.

Aldizkariak 1.203 harpidedun ditu, eta horiek aldi-aldi berritasun-buletinak jasotzen dituzte euren posta elektronikoan. Sare sozialen babesari esker, aldizkariak edukiok hedapen handia dute.

Elkarreragina formatu digitalaren beste lorpenetako bat da, berri askok irakurleen iruzkinak jasotzen dituzte eta.



Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako gunea



Aldizkariaren helburuetako bat gure gizarteko esparru batzuetan eta besteetan adituak diren emakumeak, emakumeen elkarteak eta Emakundek berdintasunaren alde egindako lana ikusaraztea da, eta horrez gain berdintasunaren arloko jardunbide onak ezagutaraztea ere bai.

3.4.8. Hedabideetan agertzea

Herritarrak Emakunderen helburuez sentsibilizatzeko eta egindako jarduerak ezagutarazteko, erakundeak sentsibilizazio- eta informazio-lan handia egiten du komunikabideetan. Horretarako, iritzi-artikuluak eta prentsa-oharrak bidali ditu, eta prentsaurrekoak, elkarrizketak eta bestelako ekintza batzuk antolatu ditu.

2017an, guztira, hedabideei 33 prentsa-ohar bidali eta prentsaurrekotarako 10 deialdi egin zaizkie. Halaber, Emakundeko zuzendariak hedabideetan hainbat iritzi-artikulu argitaratu du:

- Innovación social para conseguir la igualdad. Hainbat hedabide (2017-03-08)

- La voz de las mujeres. Hainbat hedabide. (2017-11-25)

Horrez gain, hedabideen kontsulta eta eskariei erantzun zaie, adibidez elkarrizketak egiteko, datuak eskuratzeko, etab. Kontsulta gehienetan zera eskatu da: elkarrizketak Emakundeko zuzendariarekin, elkarrizketak egitea merezi duten adituei buruzko informazioa, emakumeen aurkako indarkeriarekin edo emakumeen lan-egoerarekin lotutako datuei buruzko informazioa, hainbat esparrutan (osasuna, lana, politika, etab.) berdintasunarekin lotutako hainbat gairi egindako azterlanei buruzko informazioa... Emakume eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duen edozein gai aztertzeari ekiterakoan, hedabideek dauzkaten erreferentzien artean Emakunde da lehenengoetariko eta nagusietariko bat.

3.4.9. Berdintasunaren Emakunde Saria

Emakunde sariaren bidez, jendaurrean nabarmendu eta aitortu nahi da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egindako lanagatik gailendu diren pertsona fisiko edo juridikoen -publiko nahiz pribatuen- jarduna, hain zuzen ere, EAEn emakumeen lana eta beren ahalduntzea aitortzeari dagokionez alderdi esanguratsuak hobetzeko ekintza, lan edo proiektuak egin dituzten pertsonak, edo beren jardunarekin, emakumearen zeregina aintzat hartzen eta duintzen lagundu dutenak edo emakumeen eta gizonen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzen nabarmendu direnak.



Marta Macho, 2016ko Emakunde Saria



2017an, 2016ko Emakunde Saria eman zitzaion irabazleari, hots, Marta Macho Stadlerri (matematiketan doktorea eta EHUko irakaslea). Haren ibilbide zientifikoa emakumeengana bideratuta egon da hasiera-hasieratik, matematika eta ezagutza zientifikoa emakumeengana gerturatu dadila sustatzeko, emakume zientzialariak ikusgai egiteko eta aldarrikatzeko, eta haiek Akademiari eta gizarte-aurrerapeneri egindako ekarpenak ikusgai egiteko helburuarekin. Horrez gain, genero-ikuspegia matematiketan aplikatzeko egin duen ahalegina, eta unibertsitatean

bertan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko batzorde zientifikoetan eta akademikoetan izan duen partaidetza azpimarratu ditu Epaimahaiak. Zentzu horretan, EHUko Berdintasunerako Batzordean egindako eginkizuna gailendu zuen, baita EHUko Kultura Zientifikoko Katedrak sustatutako «Mujeres con ciencia» blogaren edizioa ere. Saria emateko ekitaldia Lehendakartzako egoitzan egin zen, Iñigo Urkullu lehendakaria buru zuela, 2017ko apirilaren 5ean.

Bestalde, urte horretan, Emakunde Sariaren epaimahaiak 2017ko Emakunde sariaren irabazlea aukeratu zuen, hots, Virginia Imaz aktorea eta clown-a, «kontzientzia feministako ipuin kontalari eta pailazo modura duen ibilbide luze eta ausartagatik, eta emakume eta gizonen berdintasun eza ikustarazteko egindako lanagatik». Epaimahaiak zera azpimarratu zuen Imazi buruz: «arte eszenikoen alorrean aitzindaria eta berritzailea izan da Imaz, etiketen kontra borrokatu du eta pailazo ofizioaren duintasuna eman dio, era honetara, kultur arloko beste hainbat emakumeren erreferente bihurtuz». Era berean, epaimahaiak nabarmendu zuen Imazek maisutasunez erabili duela umorea, gizarte-ispilu moduan, eta ikusten duena konplazentziarik gabe eta,aldi berean, gaiztakeriarik gabe itzultzen duela. Umorearen bidez berdintasunari eta desberdinkeriarri buruz hitz egitea lortu du; gai hori, oro har, ideien mundutik lantzen da, emozioaren mundutik. Horrekin Euskadiko jende asko sentikortzea lortu du, eta horixe da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko lanean ekintzara pasatzeko lehenengo pausua. Epaimahaiak, sari horren bidez, aitortza egin nahi die, halaber, artearen eremuan lan eginez kultura gizartea eraldatzeko elementu indartsua dela erakusten duten pertsona eta erakundeei, emakume eta gizonen arteko berdintasunaz ikasteko beharrezkoak diren estrategia ugari ematen baitigu kulturak, eta funtsezkoa baita emakumeek kulturaren parte hartzea eta egiten dioten ekarpena aitortzea.



Virginia Imaz, 2017ko Emakunde Saria



3.4.10. Emakunderen webgunea eta sare sozialak

Emakunderen webgunea herritarrentzako zerbitzuaren parametro zorrotzetarantz bideratu da. Alde horretatik, zerbitzu publiko digitalaren kontzeptua sakondu da, eta ahal den neurrian bidea eman da edukien kontsulta gai-arlo batzuetan oinarrituta egin ahal izateko, bai eta sare sozialekin, Irekiarekin, Blogekin, eta abarrekin elkarreraginean aritzeko ere.

Mantendu eta indartu egin da 2017an, modu esanguratsuan, sare sozialen aldeko apustua. Facebooken eta Twitterren presentzia handiagoa lortu duenez, igoera esanguratsua izan du jarraitzaile-kopuruan eta martxan jarri da Instagramen ere, zeinetan 596 jarraitzaile lortu dituen lehenengo urtean. 2017ko abenduan, Facebooken 6.909 jarraitzaile zituen.

Twitterreko Emakunde kontuak, 2017ko abenduan, 5.839 jarraitzaile zituen. Bi kontu horietan, Emakunde aldizkariko berrikuntzak azaltzen dira, bai eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko artikulua eta dokumentu interesgarriak ere.

Gizonduz ekimenerako kontu bat ere badu Emakundek Facebooken.

Gainera, Emakunderen jarduerarekin lotutako bideoak igo dira sarera, eta erakundeak kontu bat dauka dagoeneko YouTubeen.

